

Euskal liburugintza 1999

JOAN MARI TORREALDAI



ARGITALETXEAK

f

TITULUAK ETA TIRADAK

f

NOBEDADEAK / BERRARGITALPENAK / ITZULPENAK

f

HEZKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA LIBURUAK

f

HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUAK

f

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

f

LITERATURA

*Egunen gurpilean*JOSEBA BALERDI • HARKAITZ CANO
• BEGOÑA DEL TESO • LUIS FERNANDEZ

JAKiN

120

iraila
urria
2000



Aldizkari hau ARCEko kidea da
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)




*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura
eta Euskara Departamentuaren laguntza jaso du*



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Aurkibidea



Zenbaki honetan

w7

Ciburuak

Euskal liburugintza 1999 w11
JOAN MARI TORREALDAI

Egunen gurpilean

JOSEBA BALERDI • HARKAITZ CANO w117
• BEGOÑA DEL TESO • LUIS FERNANDEZ

© JAKIN

JAKINeko idazlanean inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07
jakin@jalgi.com

2000ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	6.000 pzta. (36,06 euro)	—
Ale arrunta	1.000 pzta. (6,01 euro)	1.350 pzta. (8,11 euro)
KANPOAN		
Harpidetza	6.500 pzta. (257 FF / 39,07 euro)	—
Ale arrunta	1.100 pzta. (43,5 FF / 6,61 euro)	1.550 pzta. (61,29 FF / 9,32 euro)

Summary




Basque Bibliography 1999

Joan Mari Torrealdai, the editor of *Jakin*, publishes the catalogue of all the books published in Basque during 1999, together with an appraisal of the development of bibliographical publication in the Basque language. In 1999, 1,523 books were published in the Basque language, 65 more than in the previous year. Most of these publications are school books (33,8 %) followed by children's and young people's literature (23 %) and literature for adults (13,1 %). Torrealdai has been cataloguing Basque bibliographical publication since 1976. w/OAN MARI TORREALDAI

f

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, entertainments, communication and literary-related matters. This section draws on various specialists: Joseba Balerdi, Begoña del Teso, Luis Fernandez and Harkaitz Cano. w *Various Authors*



eskuetan duzun hau bigarren aldiko 120. zenbakia da eta 2000. urteko bosgarrena.

Zenbaki honetako edukien artean *Liburuak* sailari dagokio zatirik handiena. Izan ere, Joan Mari Torrealdai *Jakin*-eko zuzendariak, aurreko urteetan egindakoaren il-dotik, 1999an euskaraz argitaratutako liburuen katalogoa aurkezten digu.

Torrealdaik urtero egiten duen lana ez da, dena dela, liburuen zerrenda hutsa eskaintzera mugatzen. Ohi duenez, euskal liburuen urteko produkzioaren azterketa eta balorazioa osatu du oraingo honetan ere. 1999ko euskal liburugintzaren azterketa honetan ere, beraz, hainbat datu, zifra eta sailkapenen eskutik, analisisia eta balorazioa datoz. Honako alderdi hauek jorratu ditu egileak: lehenik, argitalgintzari dagokionez, liburu ekoizleen aniztasuna eta argitaletxe emankorrenen aipamena; bigarrenik, argitalpenaren zifren inguruan, argitaratutako tituluen zifrak eta tiradak, nobedadeak eta berrargitalpenak, jatorrizko eta itzulitako liburuak; eta, azkenik, gai multzoen sailkapenari buruzko datuak eta azterketa. Kopuru nagusiak aipatzearren, iaz 1.523 liburu argitaratu ziren, 1998an baino 65 gehiago. Urtero legez, liburu gehienak hezkuntza eta irakaskuntza arlokoak izan ziren: 515 (produktzio osoaren % 33,8); horien ondoren, haur eta gazte literaturako liburuak (350, % 23), giza eta gizarte zientzien ingurukoak (294, % 19,3) eta helduen literaturakoak (199, % 13,1). Azterketaren ondoren 1.523 tituluon zerrenda osoa dator.

Zenbaki honetan

Egunen Gurpilean saila dator azken orrialdeetan. Ohi denez, azken bi hilabeteotako berrien iruzkin labur eta bi-ziak dakartzate Joseba Balerdik Kultura alorrean, Harkaitz Canok Literaturan, Begoña del Tesok Ikuskizunetan eta Luis Fernandezek Telepolis atalean. j

Liburuak



JOAN MARI TORREALDAI
Euskal liburugintza 1999

11



Euskal liburugintza 1999

b

J O A N M A R I T O R R E A L D A I

b

*d*agoeneko *Jakin*-eko irakurlea ohituta ere badago lan hauek irakurtzera, urtero-urtero, aldizkariaren orrietan. Oker ez banago bada 23 urte urtean behingo zita hau dugula.

Hainbeste urte lan honetan jarraitzeko motibatu nauena arrazoi bikoitza da: batetik, jendearen harrera ona, eskaria, jakinmina; eta bestetik, erreferentzialtasuna, alegia, berau dela euskarazko liburu produkzioaz dagoen bilduma edo/eta azterlan bakarrenetakoa edo bakarra. Beste inon parekorik ez egoteak, ez zerrendarik eta ez azterlanik, horrek egiten du inportante lan hau, besteak beste. Euskal erakunde publikoek muzin egin diote egin-behar honi, ulergaitzak gertatzen zaizkidan arrazoiengatik, edo aise ulertzen dudana axolagabekeria tarteko. Eskerak 1992az geroztik Gipuzkoako Foru Aldundia interesatu dela lan honetaz eta aurrera segitu ahal izateko laguntza eskaini didala.

Bai. Gipuzkoako Foru Aldundiari esker posible gertatu zait lanean segitzea eta hobetuz joatea. 90eko hamarkadan, izan ere, bi fasetan bezala egiten dut lana. Lehen emanaldia urtero gure aldizkariaren orrietan egin ohi dudana hau da. Baina liburuen fitxa bibliografikoa hemen emanda ez da agortzen nire lana. Urte osoa dago atzetik, lanean segitzeko, fitxak osatzen, berritzen. Eta bi urtez

W Joan Mari Torreal dai Soziologian doktorea eta Kazetaritzan lizentziatua da.

behin, bi urteetako liburugintza bildu eta findu ondoren Katalogo gisa eman ohi dut. Honela, Euskal Bibliografia bizirik mantentzen da. Lau liburuki plazaratu ditut dagoe-neko. Baten faltan nago hogeigarren mendeko fitxa bibliografikoen bilduma osatu ahal izateko. Neure buruarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dudan konpromiso morala hogeigarren mendearekin batera beteko da, 1999 eta 2000 urteetako liburugintza bildu eta aztertzearekin batera. Gero gerokoak!

Esanak esan, 1999ko liburugintzaz jardun behar du gu oraingoan. Aurreko urteetako eskema bera, metodologia bera, kontzeptu eta aztermodu berak erabiliko ditugu, alderaketak egin ahal izateko parametro berak eta berdinak mantendu behar baitira.

Argitalgintza

Ekoizleen aniztasuna

215 agente editorialen emaitza izan da 1999ko liburu produkzioa. Ekoizle on artean denetarik dago: edizio publikoa, edizio komertziala, noizbehinkakoak eta ia-ia kasualitatezkoak. Asko izatea bakarrik ez da zioa, mota oso ezberdinetakoak direla ere bada. Ugari eta askotarikoak, alegia.

Panorama argituz joatea komeni da.

Lehen kolpean begia jotzen duena atomizazioa da, barreiaketa. Egin kontu: 1.523 titulurentzat 215 ekoizle desberdin. Eta horietatik 127 ekoizlek 127 titulu publikatu dute, bakoitzak bat eta ez gehiago. Atomizazioaren adibide hoberik apenas dagoen. Eta ez da horretara mugatzen euskal edizioaren ahuldadea, ezdeusa: 1999ko ekoizpen osoan 23 editore dira, hogeita hiru bakarrik, urte osoan hamar titulu edo gehiago argitara eman dituztenak, edizio publikoa barne eta berrargitalpenak ere zenbatuta. Hots, 192 ekoizleren artean edizioaren % 23 eman dute argitara eta 23 editorek aseguratu dute argitalpenaren % 77.

Urtean hamar liburutik behera atera dituztenen artean bada editore komertzial edo profesional bat edo beste, baina gehien-gehienak bestelakoak dira, eta bereziki: uda-

letxeak, kutzak, elkarteak, taldeak. Berrehun bat titulu ekoitzi dira honela.

Bestalde, edizio publikoak ere indar handia du euskal argitalgintzan, hasi Udaletxeetatik eta Eusko Jaurlaritzaraino, Diputazioetatik eta bestelako erakunde autonomoetatik igaroz. Hirurehun bat titulu zor zaizkio edizio publikoari.

Laburbiltze aldera, zera esan genezake: edizioaren zati bat, hirutik bat, dagokiola edizio ez-komertzialari (publikoari, % 20; bestelakoari, % 13); eta hirutik bi zati argitalgintza komertzialari (% 67).

Argitalgintza komertzialaren barruan gero eta gehiago ematen ari den fenomeno da integrazio enpresariala. Esan nahi baita, argitaletxe batzuk ez direla independientek baizik eta beste enpresa bati lotuak daudela. Lotura hori ez da nahitaez ehuneko ehun. Gehienetan bai, hala ere. Baina badira enpresa berbera direnak, izen aldaketa hutsa tarteko. Badira enpresa baten adar bezala funtzionatzen dutenak. Eta bada material mota bat (gehienetan material sentsibleena, ikasmaterialak) amankomunean daukanik (Ibaizabal/Edelvives). Integrazio enpresarialak, gure kasuan, kolore berezia hartzen du, hain zuzen ere kanpoko editorialen sarbidea suposatzen duelako, eta preskri testuliburuaren alorrean. Aipatu ditugun aukeretako batean sartzen dira Haritza/Anaya, Zubia/Santillana, Aizkorri/Everest, Giltza/Edebé. Honen ondoan bada argitaletxe bat edo beste euskal liburuak erdarazkoen alboan bilduma edo (gehienez) adar gisa publikatzen dituenak. Gero/Mensajero edo Desclée De Brouwer baten lana ere honela kalifika genezakeela iruditzen zait.

Argitaletxe hauek indar handia dute produkzioan, ia % 40. Hamar indartsuenen artean, gainera, berauek osatzen dute gehiengoa. Urtea joan eta urtea etorri indarra hartuz joan dira, eta segun-eta egoera politikoak nora egi ten duen, askoz handiagoa har dezakete. Bertako enpresa betiko eta berriagoen egoera ere ez dut uste unerik goxoenan dagoenik. Oraingoz, tanteoak bakarrik izango dira, baina iruditzen zait erdal edizioaren lilurak tentatuta daudela batzuk. Ikusia dago eta ikusi dute, elementu berririk argitalgintzan eragile gisa sartzen ez bada behintzat, eus-

kal edizioak ez duela barrerarik puskatzen. Liburuak ez du salmentan gora egiten, euskaraz ere ez. Hor hasten da erdarazko argitalgintzaren tentazioa, euskarazkoa osatzeko batetik, intzidentzia izateko bestetik eta biziraupen gisa hirugarren. Oraingoz, berriz diot, joera hau ez da barra-barra zabaldu, baina oker ez banago bada horren zantzu bat baino gehiago. Denbora eta etorkizun politikoa lekuko.

Lehen hamarrak

Zerrenda honek tituluaren ekoizpen orokorraren mailaketa azaltzen du. Aurreko urtean bezala, edizio publikoa aparte utzi dugu, bestela hemen leudeke Eusko Jaurlaritza eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

<i>Argitaletxea</i>	<i>Nobedadeak</i>	<i>Berrarg.</i>	<i>Titulu kopurua</i>	<i>%</i>
Elkarlanean	86	258	344	22,6
Ibaizabal	86	63	149	9,8
Zubia-Santillana	80	43	123	8,-
Erein	30	53	83	5,5
Ttartalo	80	0	80	5,-
Giltza-Edebé	34	3	37	2,4
Aizkorri-Everest	33	0	33	2,2
Alberdania	19	11	30	2,-
Desclée De Brouwer	14	6	20	1,3
Sendoa	18	1	19	1,2
Gero-Mensajero	16	1	17	1,1
<i>Guztira</i>	<i>496</i>	<i>439</i>	<i>935</i>	<i>61,1</i>

Hamar argitaletxe emankorrenen zerrenda honetan, aurreko urteetan azaldu izan dugun emaitza orokorraren ondoan nobedadeen eta berrargitalpenen zifrak erantsi ditugu aurten. Nobedade/berrargitalpenen arteko harremanei begirada bat emanez, konportamendu oso desberdinak aurkitzen ditugu editorial batzuen eta besteen artean. Berrargitalpenaren pisua ez da bera batean eta bestean. Batzuen kasuan ez da % 10era ere iristen: Gero, Sendoa, Aizkorri, Giltza. % 30-50 bitartean dabil beste batzuen kasuan: Ibaizabal, Zubia, Desclée De Brouwer, Alberdania. Eta bi euskal argitaletxe beteranoen artean pisu dezente handiagoa du berrargitalpenak: % 64 Ereinentzat eta % 75 Elkarlaneantzat.

Nork esan azken hauen proportzioa altuegia ote den ala eskasegia gainerakoena? «Gehiegi/gutxiegi» balorazioa ahaztuta, bai esan daitekeela berrargitalpenak proiektu editorial baten sendotasuna seinalatzen duela, produktuan asmatu izana, fondoak mugimendu bizian jartzea, produktuari etekina ateratzen asmatu izana. Eskuko liburuan bederen berrargitalpen falta ez da seinale ona.


Lehen edizioan edo nobedadeen zutabearen arreta jartzeko badugu, zera ikusten dugu, argitaletxeen produktzioan aldeak ez direla horren handiak eta hiruzpalau editore nahikoa parean dabilzala. Berrargitalpenak markatzen du hauen arteko diferentzia. Nobedadeen kopuruari begira paretzu dabilzala Elkarlanean, Ibaizabal eta Zubia-Santillana, eta nahiz eta kasu berezia izan, Tarttalo ere bai.

Argitalpena zifratu

Tituluak eta tiradak

Urtero komentatu beharrean aurkitzen naiz Espainiako Gobernuaren Ministerioetatik jalgitzen diren datuak eta hemen ematen dituzdanak ez direla bat etortzen. Bestalde, INEko eta ISBNko kopuruak ere ez dira beren artean berdinak. Bere behin-behinekotasunean ere fidagarriagozat jotzen dituzte nik nireak, baina tira.


Titulu produkzioa urtez urte



1999ko edizioari buruz korritu duen zifra 1.281 tituluakoa izan da, ez dakit INEkoa edo ISBNkoa, iturbururik

ez baita aipatzen. Ondoko zerrendan agertzen den liburu kopurua dezente handiagoa da, 1.523, eta horixe da (oraingoz) ontzat ematen dudana. Aurreko urtean baino 60 bat titulu gehiago atera dira 1999an. Eta 90eko hamarkadako batez bestekotik (1.200) gora gabiltza.

Tituluen eboluzioaren indizea



Ez dakit nik kopuru hori gehiegi ala gutxiegi den. Segun eta zeren arabera neurtu gustu guztietarako iritziak daudela gauza segurua da.

Askotan ibili gara euskaldunok (ez dut esango eredu bila baina bai) erreferente bila kanpoan. Gogoan dut 70eko hamarkadan Islandiaren kasua egon zela modan. Haien liburugintza jartzen genuen lortu beharrezkotzat-edo. Gaur egun orduko ametsa betetzear dugu, ia-ia iritsi gara haien zifretara, 200 tituluren aldea daramagute, besterik ez. Hori horrela izanik ere, deus gutxi esan nahi du berdinketa horrek, kontuan eduki behar baita Islandiako biztanlegoa: 256.000. Atera orain liburu/biztanle erlazioa eta bistan da ilargia baino urrutiago dagoela Islandia guretzat. Ia-ia laukoiztu egin beharko genuke gure produkzioa. Islandia, hortaz, beti geldituko da ametsetako emaitzaren eredu gisa.

Herri txikitik herri txikira, Islandia alde batera utzi eta Estonia (3.317 titulu/1.580.000 biztanle), Lituania (3.827 titulu/3.754.000 biztanle), Letonia (2.320 titulu/2.680.000 biztanle) edota Katalunia (9.000 titulu/6.000.000 biztanle) har ditzakegu erreferentzia gisa. Errepublikak baltikoetan Estoniak du guk baino biztanle/liburu erlazio hobea. Kata-

luniak ere hobea du, baina ez dago katalanen eta gure artean alde handirik.

Nazioarteko bidaia honetatik ez dut ondoriorik atera nahi, ezin da eta. Alderaketa edo erkaketa egokiagoa eta zuzenagoa litzateke eskaintza editorialaren arabera egin-dakoa, tirada kontuan edukita, alegia. Hau da, zenbat ale dagokio biztanle bakoitzari?

Tiradak aipatu ditugu. Eskaintza editorial bat juzkatzeko orduan tiradak titulu kopuruaren adinako garrantzia duela ia-ia, esango nuke.

Tiradak, gurean eta besteetan, beheranzko joera du aspaldi honetan. Euskal liburuen berri duen edozeinek daki duela 20 urte titulu bakoitzeko ale gehiago botatzen zela gaur baino, datu zehatzik ez badugu ere. Informazio guztiz fidagarria dugu Frantziako kasuan. Frantzian, 1980an, batez besteko tirada 14.702 alekoa zen eta 1999an 8.400 alekoa da. Kezka sortzeko moduko jaitziera, ez ala?

Eta hala ere, esan behar da liburu frantsesak tirada altua duela (8.400 ale tituluko). Horren erdia da liburu espainolaren tirada: 4.048 ale tituluko, alegia. Eta euskarazko liburuarena? *Precisa* ikerketa etxeak euskal edizioaren azterketa bat egin zuen iaz, eta euskarazko liburuaren batez besteko tirada 3.453 alekoa zela zioen. Honen gainetik lebilzke Hiztegiak/Entziklopediak (38.293 ale), liburu praktikoa (8.277 ale), testuliburuak (5.010 ale); eta batez bestekotik behera: literatura (2.060 ale), haur eta gazte liburua (2.331 ale), giza/gizarte zientziak (1.719 ale). Nik ez dut uste zifra hauek sinesgarriak direnik. Askoz apalagoak direlakoan nago. Fidagarritasun handiago dute, niretzat, Joxemari Sorsek Espainiako Editoreen Gremioak antolaturiko Biltzarrean emandako datuek. Joxemari Sorsen arabera, euskal liburuaren batez besteko tirada 2.000 ale ingurukoa da, handiagoa ikasmaterialetan eta haur/gazte liburuetan eta txikiagoa literaturan eta liburu soziokulturaletan.


Nobedadeak eta berrargitaldiak

Liburugintzaren edozein azterketatan agertu ohi den lehen banaketa nobedadeen eta berrargitalpenen artekoa

izan ohi da. Hots, nobedadeak edo lehen edizioko liburuak alde batetik. Eta bestetik, berrinprimaketak edo berrargitalpenak.

Berrinprimaketa eta berrargitalpena ez da gauza bera. Berrinprimaketa botaldi berria da, inolako aldaketarik gabe. Berrargitalpenak, aldiz, aldaketa suposatzen du, testu mailakoa zein formatu mailakoa. Nik neuk ez ditut bata eta bestea bereizten azterketa mailan. Egia esan, gurean, berrargitalpentzat jo ohi diren edizio gehien-gehienak, denak ez esatearren, teknikoki berrinprimaketak dira.


Nobedadeak eta berrargitalpenak



Grafikoan ikusten da azken hamarkada honetan zein den nobedadeen eta zein berrargitalpenen eboluzioa. Hamarkadako lehen urteetan nobedadeen lerroa produkzio orokorraren lerrotik hurbilago zegoen orain baino. Eta, noski, pittinka-pittinka goiko lerroa hurbilduz doa berrargitalpenaren lerroa. Eboluzio orokorrari dagokionez hori.


1999ko datuetan 1.065 titulu ditugu nobedade mailakoak. Eta berrargitalpen edo berrinprimaketa gisakoak 458. Biek egin dute gora: % 3,9 lehen argitalpenak eta % 5,8 berredizioak. Urteko produkzioan bata eta besteak duten pisua ez da ia aldatu iaiztik hona: % 69,9 osatzen du lehen edizioak, eta % 30,1 da berrargitalpenarentzat.

Nobedadeak



Urtez urteko gorabeherak agertzen dira ondoko grafi-koan, eta ikusten da hamarkadan zehar denetik egon dela, bost urtetan hazi egin da, batzuetan oso gutxi bada ere; baina jaitsi ere bai, hiru aldiz, eta batzuetan dezente. Aurtengo igoera txikia izan da, batez ere aurreko urtearekin alderatuta.

Berrargitalpenak



Nobedadeekin gertatu denaren kontrara, berrargitalpenek ez dute jaitsialdirik izan, 1993koa salbu, eta hau ere huskeria. Igoerak, bestalde, zenbait urtetan ikusgarriak izan dira, 1991koa, 1995ekoa eta iazkoa lekuko. Aurten ere igoera du, baina ez horren handia.

Berrargitalpenaren fenomenoak gero eta sendoagoa da; urtea joan eta urtea etorri berrargitalpen maila gora doa, zorionez. 1999koa honela sailka genezake:

Lehen argitaraldia.....	1.077 titulu
Bigarren argitaraldia.....	144
Hirugarren argitaraldia.....	88
Laugarren argitaraldia.....	38
Bosgarren argitaraldia.....	37
Seigarren argitaraldia.....	41
Zazpigarren argitaraldia.....	40
Zortzigarren argitaraldia.....	19
Bederatzigarren argitaraldia.....	11
Hamargarren argitaraldia.....	9
Hamaika argitaraldi edo gehiago.....	36
Hainbatgarren berrargitaraldia.....	18

Liburuaren arrakastaren neurgailutzat har genezake berrargitalpena.

Libururen bat 22. edizioan doa. Liburu bat baino gehiago da aurren bizpahiru inprimaketa izan duena. Lau edizio izan duen bat dago. Edozein modutan ere, berrargitaratu diren tituluen gehienek edizio bakarra izan dute, askok bigarrena eta ez dira gutxi bat baino gehiago izan dutenak. Urte berean bi edizio izan dute 18 tituluk: horien artean daude *Irakasle alu bat* (9-10), *Katixa eta Kroko* (6-7), *Tentazioak* (5-6), *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* (21-22), *110. Street-eko geltokia* (18-19 + 3), *Babilonia* (17-18), *Izurri berria* (13-14), *Goizuetako ezkongaiak* (12-13). Hiruna inprimaketa izan dituzte Txillardegiren *Putzu* (1-2-3) eta Koldo Izagirreraren *Agirre zaharraren kartzelaldi berriak* (1-2-3) liburuek. Aurreko urtean 5 eta oraingoan 4 edizio izan ditu Arretxeren *Ostegunak* (9-10-11-12) liburuak. Hogeita bina edizioekin puntan dabilta bi liburu, urteroko bide bere-tik, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* eta *110. Street-eko geltokia*.

Berrargitalpenari dagokion sailtxo hau ez nuke bukatu nahi bi puntu seinlatu gabe.

Berrargitalpenaren gorakadak badu zerikusirik kontsumoarekin, bai horixe. Esan dugu arestian arrakastaren termometrotzat har genezakeela. Baina ez da hori bakarrik. Inprimaketa teknikak asko erraztu direnez, eta stockagea biziki garestitu, berrargitalpenera jotzen dute editorialek gaur lehen baino askoz maizago. Horregatik hain zuzen, berrargitalpen ugari izateak ez du nahitaez tirada handia adierazten, ajustatua baizik.


Bigarren puntuak auzoko kulturen erreferentziarekin du zerikusia. Berredizioaren neurri egokia zein den ebazteko ez dago neurgailurik. Gurean, ikusi dugu, % 30 bat da berredizioa, baina Espainian % 23,3 eta Frantzia % 53. Frantziaren kasuan, hori da fondoari etekina ateratzea, hori! liburu dendatan salgai dauden liburuetatik erdiak baino gehiago berrargitaratuak dira.

Nobedadeetan jatorrizko eta itzulitako liburuak

Nobedadeak, hau da, aurten lehendabizikoz argia ikusi dutenak, 1.065 liburu dira, arestian aztertu bezala. Eta horietatik 674 (% 63,2) euskaraz sortu dira, jatorrizkoak dira. Gainerakoak, 391 titulu (% 36,8), inportaziokoak dira, lehen aldiz euskaratuak.


<i>Urtea</i>	<i>Jatorrizkoa</i>	<i>Itzulpena</i>
1990	61,-	39,-
1991	57,7	42,3
1992	56,6	43,4
1993	56,4	43,6
1994	61,7	38,3
1995	63,3	36,7
1996	59,5	40,5
1997	66,2	33,8
1998	68,3	31,7
1999	63,3	36,7

Jatorrizko liburuak eta itzulpena nobedadeetan




Aurreko bi urteetan baino indar gehixeago du itzulpenak oraingoan. 66 liburutan hazi da itzulitako liburua. Horren gorakada bezain esanguratsua da, orobat, jatorrizko tituluaren jaitsiera, txikia izanik ere.

Jatorrizko liburua



90eko hamarkadan jatorrizko liburuak lau aldiz izan du hazkundera barik eboluzio negatiboa, eta bitan nahikoa serioa, 1992 eta 1996 urteetan. Egia da, baita ere, goranzko kolpeak nabarmenak izan dituela, azken urteotan bereziki. Aurten atzerapausoa ematen du.

Itzulpena



90eko hamarkadako itzulpenaren ibilbidea ez da izan zuzena edo lineala. Koska asko izan ditu itzulpenak bidean zehar. Lau aldiz ibili da bere hazkundera zeropetik, serio xamar 1994an. Azken urteotako igoerarik handiena preskeski aurten izango du, % 20,3.

Itzulpenaren tamaina egokiaz ala desegokiaz deus esan al daiteke? Gure hiztun komunitatea horren txikia izanik, agian egokia da daukagun proportzioa, 30etik 40ra doan hori. % 36,7koa da aurten. Auzora begiratuta ez dugu, hala ere, proportzio beretsurik ikusten. Esaterako, itzulitakoa Espainian % 12,2 da eta Frantzian % 17,4 zen 1997an. Guk hagitzez altuagoa dugu, baina berriz diot geure herriaren tamainaren txikiari dagokiokeena izan daitekeela.


Gaietan barrena

Urteko liburu produkzioa multzo handi batzuetan sailka daiteke. Nazioarteko kultur erakundeen aholkuei jarraituz, 7 multzo handitan apartatu ditut liburuak. Guzti-guztiak ez, egia esan, 24 gelditu zaizkit inon sartu gabe.

Hauek dira 1999ko sailak edo gai multzoak eta beraien pisua edo proportzioa ekoizpenaren barruan:

<i>Gai multzoa</i>	<i>Zenbaki absolutuak</i>	<i>%</i>
Hezkuntza. Irakaskuntza	515	33,8
Haur eta gazteentzako liburuak	350	23,-
Giza/gizarte zientziak	294	19,3
Helduen literatura	199	13,1
Aisia liburuak	70	4,6
Zientzia. Teknika	43	2,8
Erljioa. Teologia	28	1,8
Sailkatu gabe	24	1,6

Gaien arabera



Sailen arteko proportzio honek zerikusi gutxi du auzoan ditugun hedadura handiko hizkuntzetako liburugintzeekin. Hiruzpalau gai multzo handienetara konparazioa mugatuz, Frantziako liburugintzan, esaterako, literaturak % 25 hartzen du, giza/gizarte zientziek % 21, haur eta gazteentzako liburuek % 14 eta eskola liburuek % 13. Baldin honek gurearekin antzik badu, kasualitate hutsa da hori.

Antza bilatze aldera, Galeuscako kideengana jo behar da. Parekotasun gehixeago aurkitzen da horien artean. Ikusi bestela:

<i>Gai multzoa</i>	<i>Euskaraz</i>	<i>Katalanez</i>	<i>Gailegoz</i>
Eskola liburua	33,8	33,-	31,-
Haur eta gazteentzakoa	23,-	17,-	23,-
Literatura	13,1	14,-	17,-

Hezkuntza eta irakaskuntza

Titulutan iaz baino 40 ale gehiago atera da sail honetan. Ez da igoera handia, baina ezin da ahaztu jada kopuru oso altuan gaudela. Urteko produkzioan pisu espezifiko handia du, urtero bezala, % 33,8. Alegia, hirutik bat liburu tipo hau da euskaraz.

Liburu mota honek eduki du urtean zehar protagonismo handiena, euskal hezkuntza sistema propioari egin zaizkion erasoen erruz. Testu hauetan hain zuzen Euskal Herria bere geografian edo bere historian nola azaltzen den eraso da, modu txarrez eta txarragoz.

Euskal kurrikulumaren arazoa da auzitan jarri nahi dena. Eta ematen du, zenbait egunkari eta hainbat tertuliano entzutera, testuliburuak oro ikuspegi abertzale itxi eta eskusibo batez moldatuak direla. Salaketa honek gauza asko ditu sobera eta gauza bat eskas. Eskas du azterketa, testuak berak ezagutzea. Testuak edo testuliburuak eskutan hartu eta «abertzaleen ikuspegi arrazista eta eskusibista» hori ez da inon ageri.

Baina azterketaraino iritsi beharrik ere ez zegoen. Aski zitekeen, aski da, testuen jatorriari so egitea. Liburu mota honen produkzioaren % 45,5 gutxienez Euskal Herrikan kanpo moldaturiko proiektu kurrikularretan oinarri-

tzen da. Eta arestian aipatu dut gainera, indartuz doan joera bat dela.

Baina, jakina, gurutzadaren aitzindarientzat moro, pagano edo euskaldun batek bizirik dirauen artean Errekonkistak aurrera jarraitu behar du.

Sailaren baitan proiektu editorialik emankorrena Elkarlanean eta GIEk elkarrekin osatzen dute, % 32rekin, Zubiak hartu du bigarren lekua (% 21), eta hirugarren lekua da Ibaizabalentzat (% 18,5).

Emaitzen azterketara pasatuz, lehenik esan behar da berrargitalpenak nobedadeak baino ugariago direla: % 53,6 *versus* % 46,4. Proporzio honek ez duela esangura berezirik esango nuke, ia normala ere badela, neurri on batean berriprimaketak zikloka egin ohi direlako ikasmaterialetan.

Nobedadeen barruan orain agertu den joerak bai zer-bait baino gehiago esan nahi duela. Joera berri honek, zertan esanik ez da, zerikusi zuzena du proiektu kurrikularraren jatorri espainiarrarekin. Itzulpena (edo nahiago bada, itzulpen/moldapena) jatorrizko liburua baino gehiago publikatu da: % 62,3 *versus* % 37,7. Egia esan, gainera, are handiagoa da itzulpenaren pisua, moldapen gisa agertzen den testu asko itzulpen baita, eta ez moldapen soil.

Irakaskuntzaren beheko mailetan dugu egoerarik okerrena, sortzailetasunaren aldetik. Euskal jatorrizko testuak % 20 bakarrik dira LHko nobedadeetan. Larriagoa da HHn gertatzen dena: % 8,8 besterik ez da jatorrizko testuaren presentzia. Gainerako guztia itzulia da.

Testuaren kanpoko jatorri honek gutxienez euskal proiektu kurrikularraren ezaugarri propioak «arintzea» dakar berarekin.


Irakaskuntza mailaren arabera honela sailkatzen da ekoizpena:

Didaktika. Pedagogia. Orientabideak.....	6,2
Haur eskola. Oinarrizko irakaskuntza.....	17,5
Lehen Hezkuntza.....	36,7
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	29,5
Euskararen irakaskuntza.....	8,7
Besterik.....	1,4

_____ % 100

90eko hamarkadan koska dezenteko liburu mota izan da hau. 1994an izan zuen beheraldirik handiena, baina ez orduan bakarrik: beste bitan ere urtetik urtera jaitsi egin izan da. Aurtengo igoera ez da hainbestekoa, azken bi urteotan goitik ibilia dela kontuan edukita.


Irakaskuntzako liburuak



Haur eta gazteentzako liburuak

Haur eta gazteentzako liburugintza da aurtengo bigarrena, bigarren mardulena. 350 titulu bildu ditugu bertan, iaz baino 30 titulu gutxiago gutzira. Produkzio osoaren % 23 suposatzen du horrek.

Haur eta gazteentzako liburuak



Lehenengo edizioaren indarra nabaria da, nabarmena: % 71 *versus* % 29.

Liburu mota honek duen Akilesen orpoa testuliburuak duen bera da: ekoizpen propioa, sorkuntza. Gutxi sortzen da euskaraz. Nobedadeen baitan jatorrizko liburuak pisu gutxi du: % 36,3. Itzulpena da nagusi, % 63,7rekin. Jakina da kontsumo handiko liburu mota dela hau, baina ikusten da titulu berriz elikatzen dela. Eta gainera, hau ere azpimarragarria da, erdal jatorriko liburua da gehien-gehiena.

90eko hamarkadako ibilbidean gorabehera bitxi xamarrak sortu ditu liburu mota honek. Bi urtetan igoera espektakularrak izan ditu, 1994an eta 1998an. Lau alditan, bestalde, liburu mordoak galdu izan du urtetik urtera. 1999ko uzta ere negatiboa da.

Giza eta gizarte zientziak

Zabaletan zabalena da gai multzo hau: filosofia, psikologia, soziologia, politika, zuzenbidea, geografia, historia, etnologia, eta gainera linguistika eta edertia, bertan sartzen dira.

Igoerarekin dator liburu mota hau, eta hori normalizazio kulturalaren seinale ontzat hartu beharko genuke. 40 bat tituluko uzta berria jaso dugu aurten. Produktzioaren barruan duen pisua ere hazi egin da pittin bat: % 19,3 da.

Liburu tipo honen barruan kontzentrazio handiena liburu historiko eta biografikoetan gertatu da (% 22,1), eta honen ondoren linguistikan (% 16). Maila apalagoetan baina liburu sorta polit batekin datoz gero, zuzenbidea, soziologia eta politika, eta edertia. Aitortu behar da zuzenbidean, politikan eta soziologian argitaratzen den liburu asko Eusko Administrazioen sailtakoak direla, eta ez Unibertsitatekoak edo dibulgaziozkoak, zoritxarrez.


Liburu hauek ez dute berrargitalpenik, eta hori ez da seinale ona. Itzulpenik ere apenas bide dagoen, % 11,5. Baina ez da guztiz egia. Aipaturiko hauek liburuan bertan aipatzen dute itzuliak direla. Askok eta askok, ordea, ez dute aitortzen: bi hizkuntzazkoak dira eta kitto. Sail honetako % 42 liburu elebiduna da, eta horietako askoren jatorrizko hizkuntza erdara da.

Hona gai multzo honi dagozkion eremuak:

Filosofia eta psikologia.....	3,5
Soziologia eta estatistika.....	8,5
Zientzia politikoak eta ekonomikoak.....	9,5
Zuzenbidea. Administrazioa.....	10,5
Linguistika eta filologia.....	16,-
Geografia eta bidaiak.....	7,5
Historia eta biografiak.....	22,1
Etnologia.....	6,1
Edertia.....	10,9
Besterik.....	5,4

%100

Giza eta gizarte zientzietako liburuak



Urtez urteko segimendua eginez, 90eko hamarkadan, igoera handiak eta jaitsiera dexenteak azaltzen ditu grafi-koak. Hiru urte segidan gorako joerarekin dator. Bi gora-kada harrigarri izan ditu, bata 1993an eta bigarrena pare bat urte beranduago, 1995ean.


Literatura

Literaturak aurten ere ale gutxi batzuk galdu ditu, ohiko bidetik. Ekoizpenaren baitan pisua edo indarra ere galdu du: % 13,1. Ez dakit kezkatzekoa den ala ez, baina joera iraunkorra dirudien honek zer pentsaturik eman beharko liguke.

Hamar urteko ibilbidea aztertzean garbi ikusten da li-teratur liburuaren urterik oparoenak 1993, 1994 eta 1995,

hiru urte erreskan izan zirela. Goitik behera hasi da gero, apurka-apurka, baina etenik gabe.

Literatur liburua



Nobedadeek proportzio aski altua dute literatur liburuan (% 68,8). Altuagoa ere izan dute inoiz, iaz bertan esaterako. Nobedadeen barruan jatorrizko liburua gailendu da erraz: % 77,4 *versus* % 22,6, euskaraz sorturiko liburuen alde.

Eleberria. Ipuina.....	59,3
Olerkia.....	11,-
Antzerkia.....	7,-
Herri-literatura. Bertsoa.....	6,-
Saioa. Poligrafiak.....	9,1
Generoak nahasian.....	5,5
Besterik.....	2,1
	<hr/>
	% 100

Generoen arteko orekaz edo desorekaz bistan dagoez gainera deus gutxi esan daiteke iruzkin mota honetan. Beste diskurtso tipo bat landu liteke, hori bai, narrazioaren tiradizoaren esplikazio bila, adibidez.

Gainerakoak

Azken zati honetan aipatzeko hiru gai eremu gelditzen zaizkigu. Liburugintzaren barruan pisu gutxiago dute hauek, baina mereziko lukete agian aipamen bat baino gehixeago ere. Aisia liburua da aurrena, zientzia eta tekni-

ka gaietako gero eta azken postuan datorrena erlijiozko liburua.

Aisia liburuak

Eskultura. Margolaritza.....	21,4
Musika. Antzertia.....	18,-
Argazkigintza. Zinema. Irratia. Telebista.....	23,2
Jostaldiak. Jokoak. Kirolak. Mendia.....	23,2
Besterik.....	7,1
	<hr/>
	% 100

Hirurogeita hamar tituluz osatzen da gai eremu hau. Iaz baino dezente titulu gehiago atera da aurtengoan. Liburugintza osoaren baitan % 4,6 suposatzen du. Berrargitalpenik gabeko liburu mota da, seinale txarra. Hori bai, jatorrizko liburua da gehien-gehiena: % 87,3.

Zientzia eta Teknika

Natur zientziak.....	23,3
Ingeniaritza. Teknologia. Industriak.....	30,2
Medikuntza.....	16,3
Ekologia. Ingurumena. Agronomia.....	25,6
Besterik.....	4,6
	<hr/>
	% 100

Multzo hau ere iaztik hona hazi egin da titulutan, berrogeita hiru titulu jo ditugu bertakotzat. Baina bistan da, kopuru horrekin ezin da indar handirik izan urteko produkzioaren baitan. Berrargitalpenak apenas duen lekurik, bestalde.

Erlijioa. Teologia

Teologia morala eta praktikoa.....	21,4
Teologia pastoralak.....	7,1
Biblia.....	28,6
Eliza kristaua. Liturgia. Misioak.....	39,3
Besterik.....	3,6
	<hr/>
	% 100

Azken muturrean dator erlijio liburuak, garai bateko gailurretatik oso jaitsia. Hogeita zortzi liburuz hornitzen da gai multzo hau. Kopuru txikiegia da komentariotan lu-

zatzeko, baina bai ohartarazi behar dela liburu mota honen duen indarra ezin dela islatu hemen, erabilkizun masiboa duelako eliz zirkuitutan. Ez da hilda jaiotzen den liburu bat, ez eta liburu dendako apaletan astebete soilki irauten duen horietakoa.;

Oharrak

1. Liburuaren fitxa bibliografikoan ikur hauek agertzen dira:
 - Tituluaren ostean eta parentesi artean:
 - i = itzulpena
 - b = berrargitalpena
 - e = elebikoa
 - Izenen artean:
 - / = itzultzailea
 - // = ilustratzailea (marrazkilaria zein argazkilaria)
 - Izenaren ondoren:
 - * = prestatzailea, egokitzailea, paratzailea, biltzailea
 - ** = zuzendaria, promotorea, antolatzailea, arduraduna, koordinatzailea
 - *** = euskalki aldatzailea
 - [] artean sartu dugun informazioa liburuak berak dakarrenetik aparte lortua da.
2. Bihotzez eskertzen diet informazioa bidali didaten argitaletxeei emandako laguntza guztia. Bereziki eskertzen ditut Elkarlanean, UEU, Zubia, Giltza, Alberdania, Susa, Erein, Ibaizabal, Gaiak, Xangorin, Joseba Agirreazkuenaga, Aizkorri, Emakunde, EFA, fitxak eta azterlana egin ahal izateko produkzioa eskutan utzi didatelako. Eskerrik beroenak, batez ere, KMko Agurtzane Juanenari eta Donostiako Udal Liburutegiko Arantxa Artzamendiri, eskura utzi didaten informazio bibliografikoa eskertu nahi diet bihotzez.
Eta, azkenik, esker berezi-bereziak Gipuzkoako Foru Aldundi-ko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuari, eskaini didan laguntzagatik. Laguntza horri esker egin ahal izan ditut, behar den bezala, bilketa eta azterketa hauek.

1999ko LIBURUAK: GAI SAILKAPENA

Sailak	Zenb. abs.	%
0. OROTARIKOAK	384	25,2
— Zientzia eta kulturaren oinarri orokorrak. Bibliografia. Katalogoak. Bibliotekonomia. Entziklopediak. Kazetaritza. Poligrafiak. Museoak	34	2,2
— Haurrentzako argitalpenak	350	23
1. FILOSOFIA	10	0,7
— Metafisika. Ontologia. Estetika. Filosofia sistemak. Psikologia. Logika. Etika	10	0,7
2. ERLIJOA. TEOLOGIA	28	1,8
— Berezko teologia. Biblia. Kristologia. Mariologia. Teologia morala. Liturgia. Pastoral teologia. Eliza. Kristauetz besteko erlijioak	28	1,8
3. GIZARTE ZIENTZIAK	617	40,5
— Soziologia. Estatistika. Demografia. Politika. Ekonomia. Zuzenbidea. Herri administrazioa. Gizarte laguntza. Etnologia	102	6,7
— Hezkuntza. Irakaskuntza. Heziketa. Pedagogia	515	33,8
5. ZIENTZIA HUTSAK. ZIENTZIA ZEHATZAK ETA NATURALAK	10	0,7
— Matematikak. Astronomia. Fisika. Kimika. Geologia. Metereologia. Paleontologia. Biologia. Botanika. Zoologia	10	0,7
6. ZIENTZIA APLIKATUAK. MEDIKUNTZA. TEKNIKA	37	2,5
— Medikuntza. Ingeniaritza. Teknika. Nekazaritza. Basogintza. Zooteknia. Etxeko ekonomia. Industria. Kimikagintza. Zenbait industria eta lanbide. Eraikuntza. Sukaldaritza	37	2,5
7. EDERTIA. JOLASAK. KIROLAK	70	4,6
— Edertia. Estetika. Hirigintza. Arkitektura. Eskultura. Marrazketa. Margogintza. Argazkigintza. Musika	50	3,3
— Jostaldiak. Jolas eta jokoak. Kirolak	20	1,3
8. FILOGIA. LITERATURA	246	16,1
— Hizkuntzalaritza. Filologia	47	3,1
— Literatura. Literatur historia eta kritika. Literatur generoak	199	13
9. GEOGRAFIA. BIOGRAFIA. KONDAIRA	87	5,7
— Geografia	22	1,4
— Biografiak	44	2,9
— Kondaيرا	21	1,4
SAILKATU GABE	34	2,2
GUZTIRA	1.523	100

- 100 metro** . (b). SAIZARBITORIA, Ramon. Erein. Donostia. 20,5 x 12,5 cm. 135 or.
- 110. Street-eko geltokia** . (b). ZABALETA, Iñaki. Elkarlanean. Donostia. 21 x 12,5 cm. 149 or.
- 120 marrazki mutu / 120 dibujos mudos** . LANDA, Erramun. BBK Fundazioa. Bilbo. 17 cm. 121 or.
- 128/1996 Dekretua, maiatzaren 28koa, landa-ingurunekeo turismo-ostatuak arautzeko dena. Irailaren 23ko 210/1997 Dekretua aldatu egin zuen aurreko xadapena, eta honela geratu zen testua / Decreto 128/1996, de 28 de mayo por el que se regulan los establecimientos de alojamiento turístico en el medio rural, modificado por el Decreto 210/1997, de 23 de septiembre** . (e). INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- 15 ipuin eta 15 kantu eder bizkaieraz** . -./Aznar, Eider; Egia, Maribi*. Labayru. Bilbo. 16,5 x 12 cm. 57 or.
- 17. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia / 17. Festival Internacional de Marionetas** . (e).-/Tolosako Ekinbide Etxea, Tolosako Udala**. Kutxa Fundazioa. Donostia. 24 cm. 47 or.
- 191/1997 Dekretua, uztailaren 29koa, apartamendu turistikoak, oporretarako eta turismorako etxebizitzak, etxe partikularretako geletan ostatua ematea eta landetxeak arautzen dituenak / Decreto 191/1997, de 29 de julio, por el que se regulan los apartamentos turísticos, las viviendas turísticas vacacionales, los alojamientos en habitaciones de casas particulares y las casas rurales** . (e). INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- 1989-1999: 10 urte. Herri Kontuen Euskal Epaitegia / 10 años del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas** . (e). HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA. Herri-Kontuen Euskal Epaitegia. Gasteiz. 28 cm. 80 or.
- 1998'ko Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren urtekaria / 1998 memoria Federación de Coros de Guipúzcoa** . (e). GIPUZKOAKO ABESBATZEN FEDERAZIOA. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioa. Lezo. 24 cm. 71 or.
- 1999 Euskal Herriko nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza azokak / Ferias agrícolas, ganaderas y pesqueras del País Vasco 1999** . (e). NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 21 cm. 62 or.
- 2000. Bi mila eskola hiztegia: euskara-espainiera, espainiera-euskara / vasco-español, español vasco** . (b). KINTANA, Xabier; AURRE, Jon; BADIOLA, Ricardo; EGILEOR, Sabin; GOIKOETXEA, Juan Luis; ZEARRETA, Juanjo; ZUAZO, Koldo; EKITEN TALDEKO IRAKASLEAK. Elkarlanean. Donostia. 21 x 14 cm. 568 or.
- 24 ordu euskal ekologiaren arazoetan** . LUGARESARETI, Joseba Imanol. Infomart. Legutiano. 19 cm. 63 or.
- 3 aeroportuak espainieraz: Bofill-Barcelona, Moneo-Sevilla, Calatrava-Bilbao** . (e). GAGO VAQUERO, José Luis. Lunweg. Bartzelona. 30 cm. 219 or.
- 60 Musika Hamabostaldia: Donostia 1999 San Sebastián / 60 Quincena Musical** . (e). MUSIKA HAMABOSTALDIA. s.n. s.l. 28 cm. 168 or.
- 9. Jardunaldiak Genetika eta Osasuna: Donostia, Miramoa Jauregia, martxoak 26, 27, 1999** . ASKOREN ARTEAN/Osasunagor Euskalduntzeko Erakundea**. Elkarlanean. Donostia. 24 x 17 cm. 168 or.

- A zer danbatekoa!** . (i). BAYE, Enric/Mendiguren Bereziartu, Xabier//Arànega, Mercè. Desclée De Brouwer. Bilbo. 19 cm. 79 or.
- Aberriaren alde (eta kontra)** . SAIZARBITORIA, Ramon. Alberdania. Irun. 19 x 12 cm. 85 or.
- Aberriaren poemak** . ASKOREN ARTEAN/Hiriart, Xabier*. Hiria Liburuak. Alegia. 21 cm. 134 or.
- Abner judua; eta Gizon-Tximinoa** . (i). HAUFF, Wilhelm/Peláez Arregi, Feliciano. Infomart. Legutiano. 19 cm. 63 or.
- Adigaiak I (Batueraz)** . (b). ATEKA, Piedad/Pinuaga, Amaia; Gorrotxategi, Sabin*/San Blas, Marcos. Ibaizabal. Euba. 29,7 x 21 cm. 128 or.
- Adigaiak II (Batueraz)** . (b). ATEKA, Piedad/Pinuaga, Amaia; Gorrotxategi, Sabin*/San Blas, Marcos. Ibaizabal. Euba. 29,7 x 21 cm. 128 or.
- Adigaiak III (Batueraz)** . (b). ATEKA, Piedad; IBAIZABAL TALDEA//San Blas, Marcos. Ibaizabal. Euba. 29,7 x 21 cm. 80 or.
- Adigaiak IV (Batueraz)** . (b). ATEKA, Piedad; IBAIZABAL TALDEA//San Blas, Marcos. Ibaizabal. Euba. 29,7 x 21 cm. 80 or.
- Adigaiak VI (Batueraz)** . (b). ATEKA, Piedad; GORROTXATEGI, Sabin//San Blas, Marcos. Ibaizabal. Euba. 29,7 x 21 cm. 80 or.
- Adineko ezindiak zaintzen dituzten familientzako prestakuntza ikastaroa: profesionalentzako eskuliburua / Curso de formación para familias cuidadoras de personas mayores dependientes: manual para profesionales** . (e). ARANZABAL, Sebastian; BRIÑAS, Santiago; EZKURRA, Ester; INZA, Borja; LARRAÑAGA, Nekane; MARTIN, Gloria; MENDIGUREN, Ignacio/Arriola, Enrique; Inza, Borja; Etxabe, Joseba; Manterola, Arbitxu**//Inza Iraola, Borja. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 30 x 21 cm. 422 or.
- Administrazio eta Prozedura Legea (30/1992) eta imprimaki-ereduak** . HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA. HAEE/IVAP. Bilbo. 27 cm. 303 or.
- Administrazio sanitarioko oinarrizko hiztegia** . (e). OSASUN SAILA (E.J.); OSAKIDETZA; UZEI. UZEI; Osakidetza; Eusko Jaurlaritza. Donostia; Gasteiz. 24 x 17 cm. 200 or.
- Adreilu lapurra** . ARAMBURU, Fernando//Balzola, Asun. SM. Arrigorriaga. 19 cm. 64 or.
- Affo de Cos: paperontziaren arrazoiak / los motivos de la papelera [Erausketa]** . (e). LOPEZ, Eduardo; KULTURA SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 28 cm. 83 or.
- Afrikako animalien batzarra** . (i). VI MAKOME, Inongo/Aristondo, Iñaki//Dominguez, Angel. Gero-Mensajero. Bilbo. 21,5 x 13,5 cm. 72 or.
- Afrikako semea** . (b). ARANA, Aitor. Elkarlanean. Donostia. 20 x 12,5 cm. 161 or.
- Agirre zaharraren kartzelaldi berriak** . IZAGIRRE, Koldo. Elkarlanean. Donostia. 21 x 12,5 cm. 283 or.
- Ahatetxo itsusia** . (i). LIBSA/Arratibel, Miren//Pastor, M^a Gracia. Ttarttalo. Donostia. 26,5 x 19,5 cm. 56 or.
- Ahatetxo itsusia** . (i). LIBSA/Ormazabal, Joxantonio//Libsa. Ttarttalo. Donostia. 19 x 14 cm. 40 or.
- Ahozko kreatinaren gehigarria oso entrenatuta dauden kirolarien errendimendurako laguntza ergogeniko gisa: doktorego-tesia** .

- MUGIKA ANTON, Iñigo; MEDIKUNTZA ETA ODONTOLOGIA FAKULTATEA. s.n. s.l. 30 cm. 194 or.
- Ai, ama!** . ITURBE, Arantxa. Alberdania. Irun. 19 x 12 cm. 93 or.
- Aiete Parkea** . SOLA BUENO, Ana; ALTUNA URDIN, Iñaki. Donostiako Udala. Donostia. 30 cm. 65 or.
- Aingeru Irigaray Irigaray (1899-1983)** . DIEZ DE ULZURRUN, Enrike. E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 24 cm. 24 or.
- Ainhoari gutunak** . (b). SARRIONANDIA, Joseba. Elkarlanean. Donostia. 20 x 12,5 cm. 74 or.
- Aintzinako Euskal Herriko bizimodua postal irudietan / Imágenes de la vida tradicional vasca a través de la antigua tarjeta postal / Images de la vie traditionnelle basque à travers la carte postale ancienne** . (e). RAMOS, Jesus/Sagües, Xabier*. Ortzadar. Iruñea. 22 cm. 363 or.
- Aita Donostia: P. José Antonio de San Sebastián (José Gonzalo Zulaica Arregui)** . (e). ANSORENA, Jose Luis. GK. Donostia. 28 cm. 470 or.
- Aita-semeak** . (i). TURGENEV, Ivan Sergeievitx/Morales Belda, Jose. Ibaizabal. Euba. 19,5 x 13 cm. 280 or.
- Aitona-amonen oroigarria (Bernardo Atxagaren pertsonaia batean oinarritua)** . (i). VALVERDE, Mikel/Elustondo, Miel Anjel//Valverde, Mikel. Erein. Donostia. 26 x 21 cm. 56 or.
- Aitonaren hamaikakoa** . (i). TAYLOR, Jeremy/Mendiguren, Iñaki//Ortiz, José Mari. Elkarlanean. Donostia. 18 x 11 cm. 65 or.
- Akapela** . (b). UHAINA; ELKARLANEAN. Elkarlanean. Donostia. 15 x 10 cm. 270 or.
- Akilmarro, Sakarramin eta Mamu** . (i). ALEIXANDRE, Marilar/Zubizarreta, Patxi//Enríquez, Lázaro. Elkarlanean. Donostia. 19 x 16 cm. 24 or.
- Alaba** . (b). GARATE, Gotzon. Elkarlanean. Donostia. 21 x 12,5 cm. 105 or.
- Aladino** . (i). LIBSA/Mendizabal, Antxiñe//Noriega, F. Ttartalo. Donostia. 30,5 x 21,5 cm. 16 or.
- Aladino eta kriseilu miresgarria** . (i). LIBSA/Ormazabal, Joxantonio//Libsa. Ttartalo. Donostia. 19 x 14 cm. 40 or.
- Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkien bibliografia** . URKIZA, Julen. AEK. Bilbo. 22,5 x 15,5 cm. 1.736 or.
- Alegiak** . (i). ESOPO/Mendiguren, Iñaki/Mendiguren, Iñaki**//Ortiz, José Mari. Elkarlanean. Donostia. 18 x 11 cm. 69 or.
- Alex** . (b). LANDA, Mariasun//Balzola, Asun. Erein. Donostia. 21 x 15,5 cm. 39 or.
- Alexander Tapia Perurena. Olerki-lanak** . TAPIA PERURENA, Alexander/Bidador, Joxemi*. Iruñeko Udala. Iruñea. 23,5 x 17 cm. 116 or.
- Alfabetatzearen hastapenak Goierriin. Aurresaioak eta 1967tik 1975era** . SARRIEGI ESKISABEL, Andoni. Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea. Lazkao. 24 x 17 cm. 256 or.
- Alfonso Irigoien (1929-1996)** . KALTZAKORTA, Xabier. E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 24 cm. 20 or.
- Alma ría Bilbao** . (e). RUIZ DE OLABUENAGA, José Ignacio/Ruiz de Olabuenaga, José Ignacio**. Edyfoat. Bilbo. 29 cm. 109 or.
- Alofiaren zenbaki liburua** . (i). DOWLING, Paul/Mendizabal, Antxiñe//Dowling, Paul. Ttartalo. Donostia. 22 x 22 cm. 15 or.

- Altza, hautsa kenduz V** . (e). ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA. Casares Kultur Etxea; Donostiako Udala. Donostia. 24 cm. 252 or.
- Ama Birjiñaren bizitza: (Sor María de Jesús de Agredaren «Mística Ciudad de Dios» liburutik bertsotan moldatua)** . ALDALUR, Sor Justina. Sendoa. Oiartzun. 20 cm. 240 or.
- Amodio zoroak** . BELMONTE FERNANDEZ DE LARRINOA, Joxe. Elkarlanean. Donostia. 21 x 12,5 cm. 139 or.
- Amodiozko poemak** . -./Hiriart, Xabier*. Hiria Liburuak. Alegia. 21 cm. 127 or.
- Amona sagar gainean** . (b/i). LOBE, Mira/Ormazabal, Joxantonio//Weigel, Susi. Elkarlanean. Donostia. 18,5 x 13 cm. 165 or.
- Anaiaren azken hitzak** . LANDART, Daniel. Elkarlanean. Donostia. 21 x 12,5 cm. 193 or.
- Andimaren idazlan hautatuak** . IBIÑAGABEITIA, Andima/Sudupe, Pako*. Elkarlanean. Donostia. 21,5 x 13,5 cm. 333 or.
- Andrés Nagel: fuera de servicio [Erakusketa/Exposición]** . (e). NAGEL, Andrés; LERTXUNDI, Anjel; ZAYA, Antonio/Salaverria, Ana**. KM. Donostia. 29 x 22,5 cm. 94 or.
- Zarautz** . (b/i). LERTXUNDI, Anjel; UNZURRUNZAGA, Jesús M^a; VAZQUEZ, Alejandro; BERGARETXE, Eugenio; UNZURRUNZAGA, Xabier; ARRUTI, Txomin; IZKEAGA, José Ramón; ESNAL, Ana M^a; MURUA, Imanol; ARANZASTI, M^a José; TERES, José; ZABALA, Xabier; ASINS, Elena; GABIÑA, Juanjo; EGAÑA, Andoni; LLOPIS, Fernando; ZUGAZA, Leopoldo; DUBLANG, Iñaki; ARGUIÑANO, Karlos; MOZOS, Ruth; IRIBAR, José Mari; AZPIROZ, Marian/Aldalur, Arantxa; Murua, Nekane/Aranzasti, M^a José**. Comunicación Gráfica Otzarreta. Zarautz. 30 x 30 cm. 496 or.
- Zaudete geldu pixka batean** . EGAÑA, Andoni//Olariaga, Antton. Elkarlanean. Donostia. 18,5 x 13 cm. 113 or.
- Zazpi antxumea (Urtxintxa 4 urte)** . -./Murua, Mitxel*/Belmonte, Jose. Elkarlanean. Donostia. 19,5 x 16,5 cm. 28 or.

- Zazpikotea barnetegian** . (b). PANTERAGORRI, Clousseau/Lartategi, Josu* //Alonso, Luis. Desclée De Brouwer. Bilbo. 19 cm. 67 or.
- Zazpikotea euskaltegian** . (b). PANTERAGORRI, Clousseau. Desclée De Brouwer. Bilbo. 19 cm. 60 or.
- Zazpikotea museoan** . PANTERAGORRI, Clousseau. Desclée De Brouwer. Bilbo. 19 cm. 54 or.
- Zazpikotea sagardotegian** . (b). PANTERAGORRI, Clousseau/Lartategi, Josu*//Alonso, Luis. Desclée De Brouwer. Bilbo. 19 cm. 56 or.
- Zeberrioko kantak** . -./Etxebarria Ayesta, Juan Manuel*. Sendoa. Oiartzun. 19 cm. 238 or.
- Zelula. Zelula eukariotikoaren azalpenerako testuliburua (I)** . MARIGOMEZ, Ionan; CAJARAVILLE, Miren P. UEU. Bilbo. 24 x 17 cm. 597 or.
- Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan** . -./Odriozola Pereira, Juan Carlos**. EHU. Argitalpen Zerbitzua. Leioa. 24 x 17 cm. 190 or.
- Zenbakiak. 1, 2, 3...** . (i). BEASCOA/Ormazabal, Joxantonio//Rosenberg, Natascha S. Ttarttalo. Donostia. 24,5 x 19 cm. 12 or.
- Zer duzu, Nuria?** . (b/i). LLOBET, Gloria/Bengoetxea, Ales. Elkarlanean. Donostia. 20 x 12,5 cm. 148 or.
- Zidorzaletasunaren eskuliburua** . (i). SANCHEZ ARANAZ, Fernando/Armentariz, Xabier. Infomart. Legutiano. 19 cm. 63 or.
- Zientziaren hiztegia (200 hitz 2.000 urterako)** . ANDUAGA, Aitor. Gaiak. Donostia. 21 x 16,5 cm. 295 or.
- Zipriztin** . (b). ORMAZABAL, Joxantonio//Lucas, Jesús. Elkarlanean. Donostia. 18,5 x 13 cm. 128 or.
- Zomorroak: ttikien abentura bat** . (i). DISNEY; PIXAR ANIMATION STUDIOS/[X.X.]/[X.X.]. Aizkorri. Bilbo. 28,5 x 21 cm. 112 or.
- Zoologiko bat zeruan** . (i). MARSIG/Murua, Mitxel//Tavazzi, Laura. Ttarttalo. Donostia. 19 x 16 cm. 16 or.
- Zuhaitz berezia** . ATEKA, Piedad. Izar. Bilbo. 19 cm. 24 or.
- Zumaia eta arrauna: I. Bertsopaper Lehiaketa 1998** . ASKOREN ARTEAN. Zumaia Eskola. Zumaia. 21 cm. 50 or.
- Zumaiako 650. mendeurrenaren hitzaldiak** . (e/i). -./Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak. Zumaia Udala. Zumaia. 28 cm. 300 or.
- Zumalakarregi** . ALBERDI, Mikel. Elkarlanean. Donostia. 18 x 12 cm. 107 or.
- Zumarragako elizaren historiari buruzko ikerketa: Andre Mariaren Elizak** . PRADA, Antonio. Zumarragako Parrokia. Zumarraga. 24 cm. 320 or.
- Zupankapaloak** . AÑORGA, Pello//Mitzelena, Jokin. Añorga-Mitzelena. Oiartzun. 19 cm. 113 or.

Egunen
gurpilean



kultura • 117

Chillida-leku: maisulana izen itsusiaren atzean

- Zurbarán: pintura, pintura barruan

JOSEBA BALERDI

f

literatura • 122

Ronetan bustitako hitzak • XX. Mendeko Poesia Kaiarak

- Jeneroen krisia (eta krisi gehiago)
- Oraindik irakurri ez ditudan liburuak

HARKAITZ CANO

f

ikuskitzak • 127

Arabiako Lawrence-aren Brough Superior motoa
ez bazen arte berdadera...

- Martiri mozarabiarren bidaia azkenurrekoa

BEGOÑA DEL TESO

f

telepolis • 132

Mehatxuak • Ezinbiltzatik Sydneyko kronika onenetara

- Interneteko bazterrak • Domeinu lapurreta

LUIS FERNANDEZ



Artearen balioaz behin baino gehiagotan aritu gara orrialde hauetan, artearen balioaz baino gehiago artearen definitzioaz ere bai, beti ere hitz handi hauek jakitunen esku uzteko, eta artea bera definitzea lan nekeza dela esateko.

Lan bati, edozein lani, artistiko adjektiboa erantsi ahal izateko emozionatu egin behar duela iruditu zait beti, nolabaiteko emozioa sortu lan hori apreziatzen duenarengan, lan hori ikusi, entzun, irakurri edo ukitzen duenarengan. Ez guztiengan, noski, nahikoa baita pertsona bakar batek, edo artistak berak bakarrik nabaritzea lanak baduela eraginik berarengan, berria den zerbait sortarazi diola. Sentsazio berri bat esperimentarazi.

Norbaitek hori definizio moduan hartuko balu, berehala konturako da, hala ere, zabalegia dela artea definitzeko tresna gisa, labean ondo egindako legatz bat ere kabituko litzateke-eta artearen atalen batean; eta zabalegia den neurri berean, muga zorrotzegiak jartzen dituela pentsatzea ere litekeena da, artetzat onartu beharko baikenuke gorrotoa, nazka, barregura maltzurra, inbidia edota egilearenganako lastima sortarazten digun edozein lan.

Izan ere, artea arte gisa onartzeko ez dago zertan errespetatu artelana, eta are gutxiago lan horren egilea. Baina guk norbaiti artista izena ukatzeak ez du gutxituko lanaren balioa, lanak berezko baliorik baldin badu behintzat, nahiz eta alderantzizkoa gertatzea posible izan: alegia, baten bati artista estatusa aitortzeak, horrek bai, lanaren balioa areagotu dezake.

Arteak nolabaiteko balio instrumentala zuen neurrian izan du balioa historian zehar hainbat garaitan. Esate baterako, guk aurrehistoriako artelantzat dauzkagun leize zuloetako marrazkien kasuan, biharamuneko ehizan zortea edo abilezia lagun izan zitezten balio zuen animalien figurak paretean marrazteak. Baina artearen balio instrumental hori atzean gelditu eta artelana berezko balioa hartuz joan bada ere —gaur egungo ia balio absolu-

tua iritsi arte—, artearen instrumentalizazioak gero eta indar gehiago hartu du, indar ideologiko handiagoa, zehazki esateko. Gaur, artea ez da artea bakarrik, ideologiak taxutu eta molda ditzakeen instrumentua ere bada. Ez gaur bakarrik, noski, polliki-polliki historian zehar gero eta argiago hartu baitu paper hori artelan orok: ez literaturan bakarrik —ideologia transmititzeko nahitaezko tresna gisa argien agertzen den diziplinan—, baita gainerako arte moduetan ere, eta baita arte plastikoetan ere.

Gizakion historian ez da aurrerapauso eskasa, ideologiak finkatu eta garatzeko erabilitako tresna guztien aldamenean, gerraren edo zigorraren aldamenean esate baterako, arteak ere paper bat izatea; ez baitzait iruditzen arteak ere paper hori jokatzera maltzurra eta berez txarra irudituko zaion inozorik izango denik, edo bestela esanda, artearen balio absolutua ideologiaren nahitaezko bilakaeratik kanpo edo gainetik egon behar duela esaten duenik gelditzen denik gaur egun.

Baina aurrerapauso horrek, txanpon guztien aurpegiak bezalaxe, badu bere gurutzea, beti izan du: alegia, artistak eta hauen obrak ideologiaren arabera sailkatzea, eta sailkapen hori hartzea artelanaren balioa neurtzeko tresna oinarritzotzat. Esate baterako: *hik hire pinturarekin gizakia - ren bakardadeak sortzen duen zirrara azpimarratzen duk behin eta berriro, tristura islatzen duk kolore ilun horiek erabiliz, bel - durra sortzen didak espazio geometriko huts eta ikaragarri ho - riek oihalean jartzen dituanean, niri, kristaua eta katolikoa naizen honi, Jainkoak sortuak garela sinesten dudan honi, munduaren edertasuna edozertan nabari beharko nukeen honi, gizakia bakarrik ez dagoela badakidan honi, gure transzenden - tziatz jabetzen naizen honi... Hirea ez zetorrek nirearekin bat, hi nirea desegiten saiatzen ari haiz hire lan horien bitartez... Hirea ez duk, beraz, artea; hi ez haiz artista, hire ustezko arte - lan horiek ez zidatek niri ezertarako balio... Hainbat teknika erabiltzen jakingo duk, beharbada, baina horretantxe gelditzen haiz... benetako artearen muga zeharkatu ezinik.*

Hau, noski, pentsamendua zertxobait elaboratua bada; zuzenean erantzun badaiteke: *Hi ez haiz guretakoa, be - raz hire lanak ez dik piperrik balio.* Richard Wagner konpo-

sitoreak juduen kontra erakutsi omen zituen jarrerek, adibidez, Israelen gaur egun ere bere musikak sortzen duen gorrotoa esplikatzeko balioko luke artearen instrumenta-
lizazio horrek.

Urteak, eta mendeak, daramatzagu instrumentaliza-
zio ideologiko horri aurre egin beharraz mintzatzen, eta
behin eta berriro horretantxe erortzen. Bizitzan gertatzen
diren pasadizo gogorrenetan bezalaxe, artearen balio uni-
bertsalaz diharduten borondate onez egindako diskurtsoez
gain, denboraren joana izan da orain arte aurkitutako an-
tidoto eraginkor bakarra. Urteak pasa ahala, eta gertaera
historikoak atzean utzi eta ahaztu egiten diren neurrian,
orduan itzultzen da artearen benetako balioa lehen plano-
ra. Eta bitartean, gertaera historiko horiek ahaztu gabe dau-
denean, autorearen pentsamolde eta jokaerak pil-pilean
dauden bitartean, orduan artelan bati buruzko benetako
balioa juzkatzea —edo artista jakin baten inguruko iritzi
zehatza botatzea— gehiegi baldintzatzen da, nahikoa bai-
ta kritiko papera duenak artista jakin bat garaikide eta la-
guna izatea, askoren aurrean berak eman dezakeen iritziak
balio guztia gal dezan.

Diskisizio hauek guztiak edonon izan daitezke bali-
garriak, baina gurean, Euskal Herrian, gaurkotasun bere-
zia dute, edota gaurkotasun hori ez dute inoiz galdu, eta
aurreiritziz betetako panorama baten aurrean gaude. Ba-
tetik, artearen inguruko eztabaida eta debate guztiak ide-
logia politikoak oso baldintzatuta dauzka; eta, bestetik,
eta beharbada era kezkarriagoan, nolabaiteko pentsa-
mendu bakarra eta «politikoki» zuzena gailendu zaio de-
bate horri, eta beraz, gaur egungo arteari dagokion edo-
zein debatetan oso zaila da pentsamendu bakar horretatik
ihes egitea. Batez ere arte garaikideari dagokionean.

Chillida-leku: maisulana izen itsusiaren atzean

Horrek ezin gaitzake eraman, hala ere —eta pentsamen-
du bakarraren sareetan erortzeko arriskua espreski uxatu
nahian—, udazken honen hasieran Euskal Herrian gerta-

kari haundia izan dena ezkutatzera, edota garrantzi izpirik kentzera Eduardo Chillidak Hernaniko Zabalaga base-rrian museo bizia zabaltzeari.

Chillida-leku izen xume bezain itsusia jarri dioten museo horrek, Donostiako Errekaldetik Galarretara doan errepidean dagoen museo horrek, balio bat badu gainera-koen gainetik: Chillida oraindik bizirik dago, eta ez da bera desagertu arte itxaron behar izan, bere lana guztion esku uzteko, berak Bachen musika adina maite duen baserri horretan. Baina balio positibo horrekin batera, kezkatu egin nau Chillidaren museoa zabaltzeak sortu duen oihartzun mediatiko ikaragarrian, bere obraren inguruko debate handirik ikusi ez izanak. Niri ere gustatzen zait Chillidaren lana, beste askori bezala, baina aho bakar batek hitz egin du Chillidaren lanaren inguruan aste guztio-tan, eta faltan bota dut orain hamarkada batzuk Jorge Oteizarekin sortutako tirabira, haserre eta eztabaidak gaur egun berpiztu ez izana, ez Oteizarekin —ez zuten eta alferrik elkar besarkatu bi artistek, lehenagoko gorabeherak atzean utzi izanaren sinbolo gisa— baina bai Chillidaren obrak dituen kritiko gogorrekin, baditu eta.

Edonola ere, ez diot meritu fisik kendu nahi Chillida-lekuri. Nik bisitatu nuenean, urria ongi aurrera ordurako, Euskal Herriko kostaldeak tarteka, udazkenetan, eman ohi dizkigun lainoz ziprztindutako zero urdina nagusitu zen, eta hankapeko belardian nabaria zen freskura, eta gorriaren gama pil-pilean zegoen aurretik izandako berdea arboletako hostoetatik desagertzen ari zen bitartean. Eta hantxe zeuden Chillidaren eskultura handiak, beti han egon balira bezala, betiko han baleude bezala, euren tokia, artistak sortu zituenetik, hura izan balitz bezala, eta orain arte esanahi osoa erakusteko gauza izan ez balira bezala. Ez nuen patrikako CD horietako bat eraman, Johann Sebastian Bachen laugarren *suite*-a —Csaba Onzcayren celloak joa, esate baterako— aldi berean entzun ahal izateko, baina beharbada komenigarria izango litzateke artistaren sor-kuntzan hainbesteko garrantzia izan omen duen musikaz laguntzea Chillida-lekura egindako bisita. Beste batean, agian.

Chillida-lekuren inaugurazioak beste hainbat ekitaldiri nolabaiteko itzala egin die aurtengo udazkenean, baina ez du horrek esan nahi gertatu den gauza bakarra izan denik. Gogoan izateko moduko hainbat erakusketak zipriztindu ditu aurtengo udazkenean gure hiriburuak, bai Euskal Herriko artisten eskutik —Donostian batez ere— bai kanpokoen eskutik —Roberto Mattaren erakusketa Bilbon horren tokiko—.

Zurbarán: pintura, pintura barruan

Baina nire joera klasikoak Zurbarán pintore espainiarrarengana eraman nau berriro ere, Bilboko Arte Ederretako Museoa azken bizpahiru urte hauetan, Migel Zugazaren zuzendaritzapean, egiten ari den lan azpimarragarriaren azken isla. Ez dituzte pintorearen lan gehiegi zintzilikatu Bilbokoan, baina bai extremadurarraren maisutasuna nabaritzeko adina. Espainiako Urrezko Mendearen pintoreak Berpizkundera nagusitu zen estiloari zenbaterainoko mugak ipini zizkion, edo barrokoaren bidea jorratu ondoren estilo klasikora itzuli zen ala ez, orrialde askotan irakurri ahal izan dugu guztiok dagoeneko.

Baina lehenago ere behin baino gehiagotan esan dudan bezala, niri, askotan eta askotan, gustatu edo ez gustatu parametroa erabiltzea gustatzen zait artelan baten aurrean nagoenean, eta esan behar dut, ia baldintzarik gabe, niri Zurbaránen pintura gustatu egiten zaidala, eta edonori gomendatzen diodala bere koadroak ikustea, baita erakusketa berezia bukatu eta Bilboko Museoaren bilduma propiokoak besterik ez badaude ere ikusgai. Baina *San Hugo jangelan* (edo errefektorioan) koadroaren aurrean jartzeko paradarik izanez gero, begiratu une batez bazkaltzen ari diren fraideen atzealdean dagoen paretean zintzilik dagoen bigarren koadroari. Pintura, pintura barruan —antzerkian izan balitz modernotasunaren paradigma izango zatekeena—. Fraideen atzeko koadro horrek bakarrik mereziko luke Zurbaránen aurrean aho zabalik gelditzea. j



Ronetan bustitako hitzak

Venezuelan ohitura dago liburuen aurkezpenetan xanpaina edo rona baliatuz liburuak bataiatzeko. Pako Aristi idazle eta kazetariaren *Venezuela, iraultza isilaren hitzak* liburua Donostiako Udal Liburutegiko sotoan aurkezteko minutu gutxi falta zirela, hor abiatu zen Garikoitz Berasaluze, Txalaparta argitaletxeko arduraduna, alde zaharreko tabernaren batera ron txupito baten bila. Esan eta egin: Pako Aristi rona liburu irekiaren orrietara isurtzen ikusi ahal izan genuen hurrengo eguneko egunkarietan. Sotheby's enkante etxeak bere egin omen du dagoeneko liburu perfumatua. Ohitura bihurtuko da akaso hemendik aurrera liburuak bataiatzearen kontua. Auskalo.

Aurkezpenaren egunean Venezuelan eman zituen hila-beteetan liburu aurkezpenen batean egon izana frogatu bazuen, Venezuelako gizartera samurtasunez egindako hurbilketa den liburuan, herrialde honetako aro politiko berriaren testigantza zuzena ematen digu Pako Aristik. Testigantza ez da ordea hotz-hotzean egindako analisi edo elkarrizketa sail hutsa, berak han bizi izandakoez erabat baitago liburua bustia (nire aleari ere hogeigarren orrialdetik aurrera hasi nintzen ron usaina hartzen). Venezuelako gaztelera bereziaren ñabardurak azaltzen zaizkigu, idazleari gertatutako pasadizoak (gurasoak agurtu ondoren aita biblia irakurtzen geratzen deneko pasartetik hasi «Aitak hegazkina erori ez dadin egingo du erregu; amak, gainera, Venezuelatik emakume txarren bat ekar ez dezadan» eta Hugo Chavezekin topo egin asmotan Mr. Beanen larruan sentitzen den pasarteraino). Kazetaritza lana literaturarekin uztartzen duen liburu honek berdin biltzen ditu bere orrietara Caracasko egunkarietako kontaktu orrialdeetako iragarki xebreak nahiz titular handiak. Aristi erreportaietan trebatutako idazlea da, eta ironiaren irazitik pasata damaigu oraingoan ere Venezuelako bere ikuspegi guztiz pertsonalaren berri:

Venezuelarrak zalantza baten erdian bizi omen dira, edo *huevo*n bat izan edo *coño de madre* bat izan. Autoan zozelarik, aurrekoari bozina jotzen zaio etengabe «Qué haces, huevo» oihiukatu. Eta atzekoak bozina jotzen badizu, burua jira eta «Qué quieres, coño de madre» oihiukatzen zaio. Orduan, aurrekoarentzat *coño de madre* bat zara, eta atzekoarentzat *huevo*n bat.

XX. Mendeko Poesia Kaiarak

Ez dut uste inor haserretzeko arrisku gehiegirik dagoenik Susa argitaletxea poesiarekin konprometituen dagoen euskal argitaletxea dela diodanean. XX. Mendeko Poesia Kaiarak izeneko bilduma da haien azken apustua: XX. mendeko euskal poetarik esanguratsuenen antologia.

Erronka ez da edonolakoa: hamarnako lau sortatan eskainiko diren berrogei poesia kaiaraz osaturik egongo da bilduma, azken hamarrak 2001. urteko neguan argitaratuko direla. Estreinako hamarrak liburu dendatan dira dagoeneko: Orixe, Salvatore Mitxelena, Xabier Iratzeder, Nemesio Etxaniz, Joxe Azurmendi, Arantxa Urretabizkaia, Bernardo Atxaga, Itxaro Borda, Iñigo Aranbarri eta Luis Berrizbeitia dira bildumako lehenak.

Koldo Izagirrek, hautaketa eta apailaketa lana egiteaz gain, hitzurre labur bezain mamitsu bana idatzi dio autore bakoitzari. Liburuak merkeak izatea eta itxura xumea izatea nahi izan dute argitaletxeok, eta horregatik izendatu dituzte kaiara eta ez liburu. Poesiazaleontzat benetako karameluak dira liburu hauek, eta batek baino gehiagok hartuko du sorpresarik, batez ere autorerik zaharrenen kasuan perla ezegunak topatzeko aukera izango baitu. Liburu guztiek orrialde kopuru bera dute, hitzurrearen luzera ere berbera da, eta badute beste ezaugarri berezi bat: liburuaren amaieran ohikoa den bibliografiaz aparte, autorearen diskografia jasotzea, alegia. Horrela, eman dezagun, Itxaro Bordaren poesiaren zale denak musikatuak izan diren bere poema guztien berri zehatza izango du. Akats bakar bezain saihestezina du bildumak: Koldo Izagirre bildumaren prestatzailea izaki, ez duela Koldo Izagirre poetaren

antologiarik jasoko. Batek baino gehiagok jo zion adarra ekainaren bukaeran Miramon Parke Teknologikoan egin zen aurkezpen jendetsuan: hitzaurreak egiteko izenordea erabili besterik ez zuela eta hartara bere burua ere bilduman sartzeko lizentzia hartu... Badira izenorde beharrik gabe ere beren burua antologatzen duten bildumagile eskrupulorik gabekoak ere, bestalde.

Jeneroen krisia (eta krisi gehiago)

Garai latzak ei datoz liburutegi txikiengat. Infernuko su baxura kondnatu nahi dituztela dirudi. Espainiako Gobernua liburuaren prezioa liberalizatzeko hartutako erabakiak ondorio beldurgarriak izan bide ditzake gure liburgintzan. Euskal editoreek, ikasliburuei ezarri zaien beherapen librea gainerako liburuetara hedatuko ote den susmoa dute eta horrek liburuaren zirkuitu naturala birrintzea ekarriko duela adierazi du Jorge Gimenez, Euskal Editoreen Elkartearen lehendakariak: «liburudenda txikiak desagertu eta saltoki handiek merkatua euren salmenten araberak kontrolatuko dute, errentagarritasun murrizteko liburuaren argitalpena kolokan jarritz». Saiakera eta poesia berri ere kaltetu. Jose Mari Sorsek *Euskaldunon Egunkaria*-n adierazten zuenez, Ingalaterran antzeko neurri bat hartu zuten duela lau urte eta liburu denden laurdenak itxi egin behar izan dituzte, argitaletxeen % 20 desagertu direlarik. Frantzia indarrean jarri zen prezioen liberalizazioa, baina azken unean atzera jo zuen bertako gobernuak. Erregaiekin gertatu den gauza bera gerta omen daiteke liburuarekin ere: hasieran prezioak jaitsi ondoren epe ertainera garestitu egingo dira liburuak, oligopolioa sortu eta enpresa handiek erabakiko baitute prezioen politika. Liburuak beti izan da erregai aproposa, izan ere.

Nobela da krisian dagoen bestea. Gero eta gehiago dago dietario, aforismo, diario eta antzeko liburuak kalera-
tzeko joera. Jeneroen mestizajearen garaia da eta gero eta zailagoa zaigu liburu bat klasifikatzea. Gure literatura ere beste edozein literaturaren pare dela adierazten duten li-

buruak baditugu puntu honetan. Joxerra Garziak *Egonean doazen geziak* izeneko *metaforismo* liburua kaleratu berri du Alberdanian. Hona Joxerrak berak nola deskribatzen dituen bere geziak: «Kanoiek-eta jomuga suntsitzea dute xede. Geziok, berriz, azkura eragitea baino ez. Berak azkura sentitzen duelako jaurtitzen du gezilariak gezia, jomugan duenari azkura hori txertatu beste asmorik gabe». Oinaztargiaren gisako aforismoak, eguneroko bizitzaren harian idatzitako gogoetak... Gezi bat besteari kateatu eta eskuetara zaizu liburua kateatuko. Bada liburu honetan iduneko bat egiteko adina perla. Perla ia metafisikoetatik hasi, kaleetako graffitiekin jarraitu eta eguneroko irratitertuliak entzutean sortzen diren ultzera nahiz sukalde burutazioetaraino. Kasu: «*Hau ez da Espainia* idatzia du norbaitek ikasgelaren atariko zutabeen. Zutabeen beheaxeago, letra txikiagoz, beste norbaitek erantsi: *Ez, noski. Hau zutabe bat da*». Edota beste hau: «*BEZ: zergarena ez ezik, balio gehienak dira gauzei kanpotik erantsiak*».

Pentsatzekoa da Joxerra Garziak egunez egun eta hilabetez hilabete bere koaderno partikularretan idatzitako gogoetak direla goian aipatuak. Ildo berean koka daiteke Txilikuren *101 gau* liburua ere: bere buruari jarritako ariketa batetik sortu baita liburu hau. Ehun eta bat gauez, egunero-egunero, zerbait idazteko ariketa ezarri zion Txilikuk bere buruari. Askotan, irakurritako zerbait hartzen du erreflexioaren sorburu, Xerazaderen moldean, 101 gau bizirauteko balioko dizun liburua osatzeko.

Liburu *okupak* dira aipatutako biak: zure mesanotxean bertan-goxo jarri eta alde egiten ez duten horietakoak. Behin eta berriro joko duzu haietara. Ez dituzu gainetik kenduko udaletxeak babes ofizialeko etxeak egiteko mesanotxea birrintzea erabakitzen duen arte.

Oraindik irakurri ez ditudan liburuak

Okupez ari garen honetan, bere aurreko eleberrian giro hori ezin hobeto jasotzen zuen idazle bat aipatu behar dugu orain. Kronika hau idazten ari naizelarik ez dut

oraindik Juan Luis Zabalaren eleberri berria mesanotxeratu, baina *Agur*, *Euzkadi* izenekoaren gaia edo hipotesia benetan zait erakargarri: zer gertatuko litzateke Lauaxeta gaur egungo garaietan berpiztuko balitz? Abiapuntuan, Koldo Izagirreraren *Iparragirre rides again* ipuin gogoangarria edo Joseba Sarrionandiak Sabino Arana gaur egungo garaietan Iurreta ondoko trenbidean kokatzen zueneko narrazio zoragarri hura dakarzkigu gogora, *Galdu arte* nobelak suposatu zuen mugarriko erreferentzietatik aldeniduz idatzitako liburuak.

Durangoko azokara begira, Joan Mari Irigoienen eleberria izango da ziur aski aurtengo izarretako bat. Bi urte t'erdi buru-belarri lan horretan aritu ondoren seiehun orrialdetik gorako eleberria taxutu du Altzako idazleak. Ez da edonolakoa izan bere erronka: Axularren euskara gozoaren estiloa oinarri hartuta, gaur egun edonork inolako zailtasunik gabe ulertuko duen euskara sortzea. *Otto Pette* eleberrian Anjel Lertxundik denok harritu (*lehertxunditu*, Joxerra Garziaren eran esateko) gintuen euskara berri bat sortu zuen eran sortu ei du Irigoienek berea nobela honetan. Idazleari askotan gertatzen zaio irudi bat hartu eta haren obsesioak bizi izatea: espirala omen da Irigoienen obsesioetako bat liburu honetan. Ez dakigu askoz gehiago Elkarlanean etxeak argitara emango duen liburu honi buruz, jende asko zain daukala beste.

Izango ditugu liburu gehiago ere, ordea: Ixiar Rozas gaztearen debuta izango den nobela, aspaldidanik zerbait irakurri nahi genion Xabier Aldairen ipuin bilduma, Jon Arretxek kolore ezberdinak aitzakia hartuta idatzitako liburu edo Juanjo Olasagarreren *Puskak bizi* poemarioa, batzuk besterik ez aipatzearen. j



Arabiako Lawrenceeren Brough Superior motoa ez bazen arte berdaderoa...

Joan ziren, joan, irailak 3 egun besterik ez zituela, Guggenheimen denboraldi luzez aparkaturik izan ziren ehundaka motozikleta miresgarri, pertxenta, lirain. Joan ziren, azeleragailua aske eta motorra trabarik gabe zutelarik. Joan ziren mende honetako ikurra, mende honetako aje eta egarria, gose eta atrebimenduak beren gurpilen gainean zituztelarik. Joan ziren Bilboko titaniozko txabola/jauregi horretatik pasa ziren milaka ikusleen begietan isla metalezkoa utzi ondoren. Begi horiek desioz beteak ziren. Begi horiek jakin bazekiten altzairuzko hezur horietan izan bazela XX. mendearen bilakaera. Itxuraldaketa. Garapena. Begi horiek, ikusle arrunt eta sorginduen begiek, ez zuten duda izpirik, moto horiek guztiek lekua dute edonongo museotan, gomazko bere haganetan planetako Historia guztia, txikia bezain handia, baitzegoen erantsia.

Joan ziren Britainia Handiko Inperioaren hondamendiaren berri eman zuten Brough Superior, Norton, BSA, Triumph horiek. Joan ziren, joanak dira, dagoeneko, Abisinian, Etiopiako Lehoiari erronka jo zioten Guzzi harriarriak. Joan ziren Estatu Batuetako kamino lau eta amaigabeetan aurkari fier eta klase handikoak izan ziren Indian horiek, Harley haiek.

Joan ziren Europako Gerrate bigarrenean, mezulari, espioi, ibilgailu hilgarriak izan ziren BMW haiek. Joan ziren Eguzki atera berriko Inperioaren berpizte eta mende kuaren seinale eta abangoardia izan diren Honda haiek, Kawasaki halakoak, Suzuki balent horiek. Horien hezur-dura disdiratsuen gainean zamalkatzen ziren Mendebaldeko industriaren Apokalipsia aldarrikatzen zuten gerlariak. Kawasaki, Suzuki, Honda agertu orduko, Europako motozikleta enpresek porrot egin zuten. Adio, denbora luze batez mundu ezaguna zeharkatu zuten moto horiei. Japondik etorritakoak zituzten zain errepedeetako hainbat

biragunetan. Japongo mendeku egarriak ito zituen orain kasik Historia, mitoa, leienda, kurba guztietako leienda baino ez diren makina europarrak.

Joan ziren *Motozikletaren Artea* deitura izan zuen erakusketa hartako harribitxiak. Eta askoren begirada tristatu zen. Jada ez ziren bilduko Guggenheim kanpoko lautada asfaltozkoan kantoï guztietatik iritsitako motozale zahar eta gazteak. Jada arropa gordetzeko armairu diseinuzkoetan beroki arruntak eta euritako merkeak pilatuko ziren eta ez prexixo, larruzko jaka berdaderoak eta joandako garaietako zaldunekin egungo motozikleroak lotzen dituzten kasko beirazko fibrazkoak. Bai, begiak penatu ziren jada ez baitira entzungo inoiz, inongo Guggenheimeko aretotan aditu diren azalpenik zehatzenak. Entzun beharrekoak ziren motoa dutenen arteko hitzaspertuak karburadoreak zirela, bobinak zirela, frenoak zirela, turbinak zirela...

Joan ziren bai. Eta beren gurpiletan beren eskulekue-tan katramilaturik eraman zituzten askoren ametsak. Abiadura handiko ametsak. Arrisku osoko lokamutsak. Herioa, izua, eroaldia lagun dituzten horien esperantzak. Estetika berezi-bereziak. Burdina lehen, pisu gutxiko aluminioa orain. Hotz guztiei aurre egiten dieten jantziak. Haize oroak labana bailiren mozten dituzten forma, molde, traza aerodinamikoak... Joan ziren ehunka motor horiek. Eta gu dolutan. Dolutan burrunba birtuala jada aditzen ez dugulako. Dolutan dagoeneko asfaltoak ez baitigu kiskaltzen azala errepidean barna irristatzerakoan. Dolutan gustuko ditugu-eta metalez eta kez gorpuzten diren eskulturak aldapa guztiak behera, malda guztiak gora doazen eskulturak.

Arriskua dakartenak. Edertasun koipetsua dariena. Zilindroak. Bateriak. Ispiluak. Mamuak. Larruz jantziriko zaldun biharkoak. Asfaltoaren kontra hausten diren hezurak... Horren guztiaren berri ematen zuen fier ehunka gurpil oinarri zituen erakusketak. Horrexegatik, kaminoetan barna sartu direlako, ibiltzen gara gu penatan.

Penatan gu, bai. Besteak, ordea, alai eta poz-pozean. Nortzuk ba? Oraindino ere Artearen Definizioaren bila

dabiltzan horiek guztiak. Oraindino, museoak errezeluz ete erreparuz, zalantzas begiratzen dituzten horiek. Eta ez naiz ari, ez horixe, *Guggy* gizarte fenomeno ikaragarri bilakatu arte museo batera ere inoiz hurbilduak ez ziren horien inguruan. Ez. Gurean bizi diren Paristik datozen sasi-artista peto-petoak, amorratu-amorratuak ditut nik buruan.

Gazteak zein zaharrak. Abstraktuak figuratiboak bezala. Hemengoak ala hangoak. Galeria dutenak eta galeria ez dutenak. Denak, kasik denak, berdintsu. Igualtxo. Antzeko-parezido. Denek kasik aho batez azaldu dute haien uste batere ez apalean, motozikletak ez direla Artea. Ba beno. Ba bale. Ba zer egingo diogu? Urte hauetan, mende akabera honetan, Milurte hastapen hauetan, Arteari muga, mutur, traba, enbarazu, izenik jarri nahi izatea... bai lelokeria galanta, bai alferrikako auzia.

Motozikletak ez direla Artea? Zer dela eta? Batetik bestera garamatzaten ibilgailuak direlako? Espaloietan aparkatzen ditugulako? Inoren sinadura ez daramatelako eskeletoan?

Aieneka hasi ziren denak motoak Guggenheimen sartu ziren egunotan. Besteak, ordea, txalo pintxalo hasi ziren. Motoak Guggenheimen izateak zera esan nahi zuen, beraiek alde zurretik bazekitena, *Guggy* ez zela mussea. Ba bale. Ba bapo.

Inoiz, noizbait, bizitza honetan edota mundu hartan jabetuko dira sasiletratu horiek egungo eta biharko Arteak definiziorik onartzen ez duela. So dagoen begiradan datza Artea. Eta mundua eraikitzen, mundua itxuraldatzen, mundua deuseztatzen lagundu zuten objektu eta gauzetan. Ea moto bat artea den? Laztandu ezazu piztu orduko apurka, piskanaka berotzen den gorputz hotz hori, igo zaitez mila karretera korritu duen makina klasiko batera, usaindu ezazu bere erregaia, bizitza ematen dion likido beltz eta koipetsua. Ikus itzazu tropelean kurbak hartzen. Ikas ezazu, plazerrez, pozean, zeinen desberdinak diren Alemaniako BMWak eta Ingalaterrako Nortonak. Baiezta ezazu motozikleten diseinuan ere Italiako jendeak ez duela parekorik. Uler ezazu, behingoz, moto bakoitzak bere

garaiko ezaugarria duela. Eta ezaugarri horrek zerikusi handia duela ez bakarrik aerodinamikarekin, baita pintura, eskultura, merkataritza, industriarekin ere... Aska eza zu behingoz azeleragailua, eta haizeak biltzen zaituenean, abiadurak zure ondoan pasa den hori desitxuratzen duenean, ohartuko zara askotan Artea bi gurpilen gainean dabilela. Larruzko jaka jantzirik, kaskoa buruan eta eskuek frenoak xuabe-xuabe estutzen...


Martiri mozarabiarren bidaia azkenaurrekoa

Motoak artea, lilura eta tentazioa, bizitza eta herioa bezain berdaderoak direla baieztatzeko, frogatu ahal izateko, makina ederra hartu dugula eman dezagun. Demagun, egun, dotorezia britainiarra eta Japongo odol beroa duten Triumph berri horietako bat dugula hanka artean. Zitzu batean iritsiko ginатеke Errioxako Remellurira. Zitzu batean korrituko genituzke mahastiak eta Toloñoko mendizerra. Ondo eta kontu handiz aparkatuko genuke muntro ederra Andre Mariren ermitako kantoi batean, gaueko izakiak lekuko, hildako sugetxoek begiak oraindik so. Kenduko genuke kaskoa eta Vicente Ameztok pintaturiko sailduak, saildu lehendabizikoak, kasik gaurko Elizak arbuioz zenbatzen dituenak, bilatuko genituzke. Baina hormak hutsik aurkituko genituzke. Sugandilak eguzkipean, saguzaharrak iluntasunaren zain, zilarrezko ilargia goian, eguzkia noiz sartuko desioan. Urte askoz, emakume jakintsu eta gogorren lagun ia bakarra izan den honzak Santa Eulalia, Santa Sabina, San Cristobal, San Esteban, San Ginés eta San Vicente Donostia aldera zirela esango liguke. Jantziko genuke berriro kaskoa, salto egin motorraren gainean eta Koldo Mitxelena Kulturunerako bidea hartuko genuke motorra bira altuetara eramana.

Bertako ganbaran egingo genuke topo, topa eta estropezu, saildu mozarabiar kasik pagano horiekin. Beraiekin batera sartuko ginатеke lehertzear den paradisu batean non Adamek eta Evak elkarri eskaintzen dioten *amanita* gozoa eta non Jainkoak, Itun Zaharreko Jainko

krudelak, Oscar Wildek esandakoa ez duen inoiz ulertuko. Zer esan zuen ba Readsing-eko presoak? Tentaziotik libratzeko erarik ederrena bertan erortzea zela...

Elkartuko gara ez hemengoa ez hangoa dirudien lurrean pintaturiko saindu aspaldiko horiekin, pintoreari haien mendeetako egarria asetzeko etengabe eskatzen, exijitzen dioten martiri olinpiko horiekin, eta milaka gauza ulertuko dugu. Esaterako, artea badagoela Santa Eulaliaren biluztasuna erdi estaltzen eta erdi agerian uzten duen oihal oneko alkandora horren izur eta tolesetan. Mairuak eta kristauak. Basurdeak eta elur gainean hil behar zuten neskato ilegorria. Mila amodio, mila sekretu gordetzen dituzten kutxa profanoak... Eta behean, gure esperoan, moto bat. Hori ez bada euripean Artearen tentazioan erortzea, ezin esan inoiz tentazio handiagorik aurkitu ote dugun. j



Mehatxuak

2000. urteko uda gogorra izan da politika mailan Euskal Herrian, eta ez dago hemeroteketan asko begiratu beharrik horretaz jabetzeko. Tamalez, komunikabideen esparruan honek eragin zuzena izan dezakeela ere susma daiteke. Bi urte lehenago, *Egin* egunkaria ixteko erabili ziren aitzakiak luzatu berri ditu Baltasar Garzon epaile espainiarrak, *Gara* egunkari abertzalea haren jarraipen/oinordeko dela ondorioztatzeko. *Gara* egunkariaren kontrako mehatxu esplizituztat har daiteke ebazpen hori. Oraingo, mehatxua besterik ez, baina badakigu nora doazen kontu hauek.

Oraingo, EKIN taldearen kontra ekin du Garzonek. Argudioak errazak dira: Ekin eta ETA gauza bera dira, eta beraz Ekineko partaide batzuk atxilotzea ETako buruzagiak atxilotzea da. *Gara* egunkariarekin antzeko egin dezakete: *Gara* eta *Egin* gauza bera omen dira orain, Garzonek dioenez, eta duela bi urte *Egin* eta ETA gauza bera zirenez, ba atera kontuak.

Terrorismoaren kontrako «kolpe erabakigarriak» ematea ezinbestekotzat egiten zaienean, emango dituzte bai. Negargarria.

Beste era bateko mehatxu edo presioak jasaten hasi dira Araban, bestalde. *Geu Gasteiz* hiri-aldizkari euskalduna dirulaguntzarik gabe geratuko den susmoa azaldu dute Gasteizko euskaltzaleek. PP da nagusi orain Arabako Foru Aldundian, eta badago susmo eta beldurrentzako lekurik. Esaten dutenez, aldizkariak preso ohi bati egin zion elkarrizketa omen da aitzakia laguntzen irizpideak aldatzeko.

Eta, gero, Gasteizko alkateak hiriko kioskoei eman dien agindua daukagu: ezin dela titipuntarik erakutsi aldizkari azaletan! Mayor Oreja hiru probintzietako lehenakari egiten dugunean, ederto pasatu behar dugu taliban hauekin, bai.

Ezinbiltzatik Sydneyko kronika onenetara

Eraikuntza nazionala motel dabil. Ezinbiltzan. Lizarrako euforiak ahaztuta, etsipena nagusi orain. Hala ere, une honetan lehenago bezala, Euskal Herrian benetako erreferentzia nazionalak hedabideetan norik ematen dituen begi-bistakoa da: *Euskaldunon Egunkaria*. Sydneyko Olinpiar Jokoen (lehen Joko Olinpikoak esaten genien...) jarraipena eredugarria izan da.

Nahi dutena esango dute abertzaletasuna deabrutze-ko, baina *Egunkaria*-ren kirol jarraipena nazionalista dela egia izanik, askoz nazionalistagoa da gainerako telebista eta medio ia guztiek ematen dutena. Frantziak zenbat domina eta Espainiak zenbat domina, beste konturik ez zekarten Sydneytik. Kirolen jarraipen mediatikoa baino kontu nazionalistagorik nekez aurki daiteke, eta, benetan, aire freskoa da halakoetan beste tankera bateko informazioa jasotzea: Gorka Zabaleta eta Imanol Murua kazetariak antipodetatik bidalitakoa, adibidez. Bai, ikurrinarekin posatzeko esan eta argazkiak egin izan dizkiete Espainiako uniformeaz jantzitako euskal kirolariei, baina esker-tzen ditugun ukitu nazionalista horietatik aparte, kiroltasunez eta jator jokatu dute. Eta ondo idatzi eta kontatu gauzak, gainera.

Interneteko bazterrak

Urte hasieran urre-karrera genuen Internetekoa. Baina giroa epeldu egin da. Nazioartean ere burbuila apur bat desinflatu da, eta kostako da lehenengo punturaino berriz puztea.

Giro nolabait hotzago honetan, euskal panoramak motel samar segitzen du sarean. Ekimen publiko batzuk iragartzen dira, baina ez dakigu oso ondo zer emango duten. EAEko Hezkuntza sailburuak Internetera konektatutako ordenadorez bete nahi ditu ikastetxeak. Lortzen badute ere, zertara konektatuko dira eskola-umeak? Kableak jartzea kontu bat da, baina ze eduki klase prestatzen ari

gara eskolako umeek Interneten ezer euskaraz aurki dezaten? Ezertxo ere ez, nire ustez. Horrela eginez gero gauzak, A eredia sartuko zaigu berriro eskoletara, nondik eta Internetetik.

Beste ekimen batzuek itxura hobea daukate, hala nola euskara teknologia berrien esparruan sustatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako dirulaguntza publiko batzuen deialdiak. Ikusiko dugu zer irtengo den hortik: ez zen diru askorik banatzeko, baina apur bat bada ere, diru horrek akaso lagunduko du ideia majoak aurrera ateratzen.

Gainerakoan, ba, nahasmendu apur bat. Gipuzkoako Foru Aldundiak badu eGipuzkoa izeneko egitasmo bat, baina ze kristorako balioko duen inork ez daki oso ondo. Gipuzkoako Kutxak ere eGipuzkoa izeneko beste egitasmo bat badu, gainera, eta, gauzak apur bat gehixeago nahasteko, beste eGipuzkoa bat ere badago, Robotiker ikerketa zentro bizkaitarrak batek daki zertarako erreserbatu duen eGipuzkoa.com domeinua... Oso e-polita gelditzen da halako e-izenak dituzten e-ekimenak iragartzea, baina ganora edo e-ganora apur bat erakutsiko balute, hobe. Aurrizkiak jartzeagatik ez dugu berez aurreratuko.

Domeinu lapurreta

Beste alde batetik, Robotikerrek eGipuzkoa.com domeinuarekin egin duena kezagarria iruditzen zait. Domeinu bat okupatu, besterik gabe hartu, ideien faltan beste batzuek behar dezaketena hartu espekulatzeko. Halako okupatzaile asko dago. Berriki, Bilbon Metrobilbao.com domeinua hartu zuen grazia gutxiko komikilari bizkaitar batek (Natxo Allende) epaiketa bat galdu du Metro Bilbao erakundearen aurka, eta domeinua itzultzeko agindu zaió (auzia epaitegietan dago oraindik, helegiteak medio).

Nolanahi ere, beste batzuen izenak espekulatzeko, fede txarragatik edo graziosoarenak egiteko okupatzen dituztenen ondoan, badago beste domeinu lapurreta kezagarri bat Interneten. Nolabait esateko, biktimak baimen-

dutako lapurreta esan geniezaioke honi. Nola gertatzen da? Erakunde jakin batek webgune bat egiteko agintzen dio diseinu edo komunikazio enpresa bati. Etxe horrek webgunea egiten dio, eta enkarguz domeinu bat hartu ere bai, baina, adi, domeinua ez du bezeroaren izenean erregistratzen, baizik eta bere izenean.

Hau gertatu zaio, adibidez, Donostiako Udalari Donostiakultura.com eta Partaidetza.org webgune ustez publikoekin. Ustez, diot, zeren domeinuak ez dira erakundeenak, enpresa pribatuenak baizik. Irungo Udalaren webgune ustez ofiziala (Irun.org), berdin. Eusko Jaurlaritzaren departamentu batzuek bultzatutako Nekanet.net eta Eragintza.net proiektuak, berdin... Euskaltzaindiari berari ere norbaitek sartu dio ziria, zeren Euskaltzaindia.org, Euskaltzaindia.com eta Euskaltzaindia.net domeinuak ez dira bereak, baizik eta beste erakunde batenak. Eta hainbat adibide, ez bakarrik erakunde publikoen kasuan, enpresa pribatuenean ere bai.

Diru aldetik, lapurreta txikia da hau: urtean 6.000 pezeta inguru kostatzen da izen bat erregistratzea. Baina inplikazio larriak ditu: Irun.org enpresa pribatu batena bada, zer gertatzen da Irungo Udalak webgunea beste norbaitekin egitea merkeagoa edo komenigarriagoa dela iruditzen bazaio? Ba, bueno, akaso bukatuko du informatika enpresa horrekin duen kontratua beste norbaitekin kontratu hobea sinatzeko, baina domeinuari agur esan beharko dio: Irun.org ez da Irungo Udalarena (edo herriarena). Izen berearekin eta toki berean segitu nahi badute, informatika etxe horrekin lotuta egotera kondenatuta daude. Betiko-edo, ez bazaio domeinua Udalari itzultzen...

Listo batzuek kontratu eternalak asmatu dituzte hemen, lapurretaren bitartez.;



JAKiN

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943.21.80.92
Fax. 943.21.82.07
jakin@jalgi.com